

**Informazio
ez-finantzarioaren
egoera orria**

Txostena



Aurkibidea

Sarrera / Matia Fundazioari buruz	2
Memoriaren irismena	4
Misioa, ikuspegia eta balioak	7
Ingurunearen analisia	8
Erronka estrategikoak / Politikak	15
Arriskuak eta aukerak	27
Negozio eredua	31
Sozietatea	37
Informazio ekonomikoa	37
Informazio fiskala	42
Hornitzaileak	43
Bezeroei lotutako gaiak	45
Boluntariotza	55
Arreta hobetzeko azpiegitura berriak	58
Sozietateari eta langileei buruzko gaiak	69
Langileak	69
Laneko segurtasuna	78
Giza eskubideak	84
Ustelkeria eta eroskeria	88
Ingurumenari lotutako gaiak	91

Sarrera / Matia Fundazioari buruz

Jose Matia Calvo Laudion jaio zen, 1806an, eta Cadizen hil, 1871n. Gazte-gaztea zela Filipinetara emigratu zuen eta herrialde horren eta Espainiako metropoliaren arteko merkataritzaren zati handi bat zuzentzera iritsi zen. XIX. mendearen laugarren hamarkadan Espainiara itzuli eta Cadizen finkatu zen; bertatik zabaldu eta dibertsifikatu zuen kolonietako merkataritza enpresa, nazioartekoa bihurtzeraino. 1870ean, testamentu luze eta zabala idatzi zuen, beraren jarduera profesionalaren eta giza eta gizarte harremanen berri ematen zuten datu ugari jasotzen zituen. Testamentuan, besteak beste, bere aberastasun handiaren zati bat bi zahar egoitza sortzeko erabiltzeko agindu zuen: bat Cadizen egongo zen eta bestea Donostian.

Matia Fundazioa 1881ean abiatu zen, beraz, Jose Matia Calvoren legatuari esker. Hauxe zuen asmo:

«Adinduei edota lanerako ezintasun osoa duten pertsonen babesa, bizitzako egun guztietarako baliabideak eta gaixotasunean laguntza ematea».

Gaur egun, irabazi asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorreko erakunde gisa aitortua. Orotariko esparru profesionaletatik datozen 20 pertsona ezagunek osatzen dute fundazioaren patronatua, independentzia eta eskuzabaltasun osoz hartzen baitute parte haren gobernantzan.

Zerbitzu soziosanitarioak ematea da Fundazioaren jarduera nagusia, eta gehienetan EAEko herri administrazioekin hitzartuta jorratzen ditu. Zehazki:

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, gizarte zerbitzuak.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin, osasun zerbitzuak.

2018an, 25.929 lagun hartu ditugu gure osasun zerbitzuetan, egoitza zentroetan, bizikidetza unitateetan, eguneko zentroetan eta abarretan. Orobat, Gipuzkoan 18.000 lagunen baino gehiagoren mendekotasuna baloratzeko datuak bildu ditugu.

Enplegu sorrerari dagokionez, 1.400 profesionaleko taldea dauka Matiak, horietatik % 90 adinekoei edo desgaitasuna duten pertsonen zuzeneko arreta eskaintzen, eta beste % 10 kudeaketan eta laguntza jarduerari eusteko arloetan lanean.

Euren denbora eskuzabaltasun osoz eskaintzen duten beste 1.400 lagun ere aritzen dira gurekin, beharra dutenei lagun egiteaz gain, kultura eta aisia jarduerak sustatzen baitituzte, egunero, gure egoitzetan.


Azkenik, 2003az geroztik, Matia Institutu Gerontologikoaren bitartez jorratzen du Matia Fundazioak ezagutza sortzeko eta berrikuntza bultzatzeko konpromisoa. Ikerketarako hain zaila izan den garai batean, krisi ekonomikoaren eragina bizi-bizia zela, Matia Institutua erreferentzia bihurtu da arlo psikosozialetako ezagutzan eta, batez ere, plangintza gerontologikoan eta pertsonengan ardaztutako arreta pixkanaka eta ebidentzian oinarrituta ezartzeko jardunean.

Horregatik guztiagatik, harro esan dezakegu sortzailearen legatuaren inpaktuak hazkunde esponentziala izan duela pertsonekin horren konprometituta dauden Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan eta Donostian bereziki.

Non gaude?

Matia Fundazioaren egoitza nagusia, Bermingham zentroa, Donostian dago; ildo beretik, Fundazioaren zentro guztiak ere Gipuzkoan daude.

3



Memoriaren irismena

Hauxe da Matia Fundazioaren Iraunkortasun Memoria.

Matia Fundazioa, Matia Servicios Sociales eta Gerozerlan SL erakundeek jorratutako jarduerak eta emandako zerbitzuak biltzen ditu memoriak. Batzuetan, Matia Institutua nahiz Petra Lekuona Fundazioa ere aipatuko ditugu. Txostenaren helburu zuzena ez diren arren, egunerokoan duten garrantzia dela eta, eta horiek ere era integratuan kudeatzen ditugunez, biak ala biak informazio osagarri gisa sartzea erabaki dugu.

Honako hauek hartzen ditu Matia Fundazioaren bateratze eremuak:

4

A) JOSE MATIA CALVO FUNDAZIOA

- Helburu soziala: pobreei, adinekoei eta gaixoei arreta ematea.
- Forma juridikoa: fundazioa.
- Helbidea: Pinu Bidea, 35, 20018 Donostia (Gipuzkoa).
- IFZ: G-20053583.
- Erregistroko datuak: G-16, EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatuta.

B) GEROZERLAN SLU

- Helburu soziala: gizarte zerbitzuak eskaintzea adinekoei, desgaitasun fisikoa eta psikikoa dutenei eta arreta berezia behar duen mendeko pertsona guztiei.
- Forma juridikoa: erantzukizun mugatuko sozietatea.
- Helbidea: Joseba Zubimendi kalea, 1, 20015 Donostia (Gipuzkoa).
- IFZ: B-20787735.
- Erregistroko datuak: Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko 1987 liburukia, 1. folioa, SS-21404 orria, 1. inskripzioa.
- Bazkide bakarra: Jose Matia Calvo Fundazioa.

C) MATIA SERVICIOS SOCIALES SLU

- Helburu soziala: zahar egoitzak sustatzea (Matia Fundazioaren ondarezko sozietatea).
- Forma juridikoa: erantzukizun mugatuko sozietatea.
- Helbidea: Zarautz etorbidea, 123, 20018 Donostia (Gipuzkoa).
- IFZ: B-20441440.
- Erregistroko datuak: Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko 1285 liburukia, 1. folioa, SS-5688 orria, 1. inskripzioa.
- Bazkide bakarra: Jose Matia Calvo Fundazioa.

Bateratzekoak ez diren arren, Matia Fundazioak beste bi fundaziorekin ere badu lotura: Matia Institutua Fundazioarekin eta Petra Lekuona Fundazioarekin.

D) MATIA INSTITUTU GERONTOLOGIKOA – INGEMA FUNDAZIOA

- Helburu soziala: ikerketa, garapena, berrikuntza teknologikoa eta zientziaren zabalkundea.
- Forma juridikoa: fundazioa.
- Helbidea: Pinu Bidea, 35, 20018 Donostia (Gipuzkoa).
- IFZ: G-20857082.
- Erregistroko datuak: F-175, EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatuta.

E) PETRA LEKUONA ZAHARREN EGOITZA FUNDAZIOA

- Helburu soziala: adineko pertsonak artatu eta mantenua ematea.
- Forma juridikoa: fundazioa.
- Helbidea: Iparralde etorbidea, 13, 20180 Oiartzun (Gipuzkoa).
- IFZ: G-20067120.
- Erregistroko datuak: F-399, EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatuta.

Matia Fundazioaren esku dago gainerako erakundeen gaineko kontrola. Honela, hain zuzen, banan-banan hartuta:

–Matia Institutuari dagokionez:

- Haren sortzailea delako eta abian jartzeko zuzkidura hornitu zuelako.
- Patronatuko kideak izendatzeko ahalmena duelako. Izan ere, Matia Fundazioko patronatuko kideak izan behar dute, halabeharrez, Matia Institutuko patronatuko kideek, bertako estatutuetan zehaztuta dagoenez.
- Matia Fundazioko zuzendaritza taldea arduratzen delako bigarren fundazioaren zuzendaritzaz ere.

–Petra Lekuona Fundazioari dagokionez:

- Patronatuko kideen gehiengoa izendatzeko eskumena duelako.
- Matia Fundazioko zuzendaritza taldea arduratzen delako bigarren fundazioaren zuzendaritzaz ere.

–Gerozerlan SLU eta Matia Servicios Sociales SLU sozietateei dagokienez:

- Bi sozietateen bazkide sortzailea eta gaur egun bazkide bakarra delako. Izan ere, kapital sozial osoaren titularra ere bada.

«Global Reporting initiative» delakoaren estandarrei jarraituz idatzi dugu memoria hau, erakunde baten inpaktu ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak plazaratzeko maila globaleko jardunbiderik egokienak biltzen dituelakoan.

Misioa, ikuspegia eta balioak

Asmoa:

Pertsonen zahartze prozesuan laguntzea, haien ongizatea hobetzeko eta haien autonomia eta duintasuna sustatuko dituzten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortzeko

Helburua:

Gizartea eraldatzeko eragilea izatea, era jasangarrian pertsonengan ardaztutako erantzun aditua emateko zahartzearen eta desgaitasunaren esparruetan.

7

Harremanetarako balioak:

- Jarrera positiboa
- Konfiantza
- Zeharkako lankidetzak
- Aitortza
- Komunikazio arin eta irekia

Arretako balioak:

- **Autonomia**

Pertsonak askatasunez aukeratzeko ahalmena izan behar du eta, batez ere, bere bizitzaren gaineko kontrola edukitzeko eskubidea.

- **Duintasuna**


Pertsona bakoitzaren izaera anitza eta balioa onartu behar dira, eta haren eskubideak goitik behera aitortu eta errespetatu, nahitaez.

- **Pertsonalizazioa**


Pertsonaren arreta prozesu osoan, beraren inguruabarrak, nahiak eta lehentasunak hartu behar dira aintzat, era pertsonalizatuan. Horrek enpatia, indibidualtasuna, malgutasuna, moldakortasuna eta parte-hartzea eskatzen dizkigu.

Ingurunearen analisia

Azken hamarkadetan, Matia Fundazioaren jarduerak hazkunde handia izan du, zahartzen diren pertsonen ongizatearen alde lanean ari den lurraldeetako bilakaera demografikoarekin bat.



EUSTATen azken zifren arabera (2015ekoak dira), 2.173.210 lagun bizi dira Euskal Autonomia Erkidegoan, eta horietatik 458.396k 60 urte baino gehiago dituzte. Horrek esan nahi du EAEko biztanleriaren % 21,1 (5 lagunetik 1) adinekoa dela. Biztanleriaren % 19,4, berriz, 16 eta 34 urte bitarteko gazteak dira. 2029. urterako biztanleria proiektzioen arabera, 65 urteko eta gehiagoko pertsonak biztanleria osoaren % 30 inguru izango dira. 550.591 lagun inguru, beraz.




Etorkizunera begira, laurogei urtekoen eta gorakoen hazkunde itzela nabarmentzen da biztanleria piramidean. 2029. urterako 80 urteko eta gorako herritarrak 200.000 baino gehiago izango dira Euskadin: biztanleria osoaren % 9,9 eta adinekoen % 34,1. Ehun urtetik gorakoen kopuruak ere nabarmen egingo du gora. 2029. urterako, ehun urteko edo gorako herritarrak 3.000 baino gehiago izango dira Euskadin, batez ere emakumeak. Adin horretako emakumeak gizonak baino 5 bider gehiago izango dira.

Eta, aipaturiko bilakaera demografikoarekin batera, EAEko adinekoen profila ere aldatuko da. Matia Institutuak Eusko Jaurlaritzarentzat egin duen Bizi Baldintzei Buruzko Txostenetik ateratako informazio batzuk aipatuko ditugu ondoren. Iturria: BARRIO, E.; MAYORAL, O.; SANCHO, M. (2015): Euskadiko 55 urteko edo gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko azterketa. Gizarte ongizaterako 77 agiri. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Zentrala. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.


Ikasketa maila

Ikasketa mailaren hobekuntza garrantzi handiko adierazlea da, pertsonen alderdi askotan eragiten baitu: posizio sozioekonomikoan ez ezik, osasunean, bizi kalitatean, zahartzaroaren plangintzan eta, behar izanez gero, zaintzetan ere bai. Adibide gisa, erdi eta goi mailako ikasketak dituzten 65 urtetik gorako pertsonen kopurua % 1ekoa zen 2003an, eta % 18koa da gaur egun.



Bizikidetza erak

Azken urteotan aldatu egin dira adinekoen (65 urtetik gorakoen) bizikidetza erarik ohikoenak. 1993an, adinekoen % 15,2k seme-alabekin eta bilobekin partekatzen zuen etxebizitza; 2014an, % 1,8k baino ez. Bestalde, pertsona bakarreko familien kopuruak ere gora egin du: % 16,5 ziren 1993an eta % 24,5 dira 2014an; eta are gehiago 80 urtetik gorakoen artean: % 31,5, horietatik % 78,1 emakumeak. Pertsona autonomoagoak dira baina bakartuago bizi dira. Egoera berri horrek inpaktu zuzena izan behar du gure zerbitzuen diseinuan eta bilakaeran, argi eta garbi.



Belaunaldi anitzeko familia, adinekoaren etxean: belaunaldi bat baino gehiagoko pertsonen osatutako familia, adinekoa izanik euskarri nagusia.

Belaunaldi anitzeko familia, seme-alabaren etxean: belaunaldi bat baino gehiagoko pertsonen osatutako familia, seme-alaba izanik euskarri nagusia.

Beste mota bat: beste familia mota bat; adibidez, neba-arrebekin edo beste pertsona batzuekin bizitzea.

Harreman sarea

Nolanahi ere, harremanen eta kontaktuen sare sendoari eusten dio, oraindik ere, euskal gizarte eta familia ereduak. 55 urtetik gorako 10 lagunetik ia 7k astero ikusten dute seme-alabaren bat (% 47,6k egunero edo ia egunero). Analisiaren esparruan, belaunaldi arteko harremanak mantentzeko faktore garrantzitsua da «hurbiltasuna». Era berean, Bizi Baldintzei buruzko Azterketak azaleratzen duenez, aurrez aurreko harremana gutxitu egiten da adinean aurrera egin ahala, baina ez seme-alabekiko kontaktua, ziurrenik laguntza eta babes premia handitu egiten delako.




Etxebizitzaren jabetza

Beste alde batetik, Euskadiko adineko gehienak bizi diren etxebizitzaren jabeak dira (65 urtekoen edo gehiagokoen % 94,3); izan ere, jabetzako etxebizitzan bizi den herritarren ehunekoak pixka bat behera egiten du adinean behera egin ahala. Horren inplikazioak agerikoak dira adinean aurrera egin ahala, etxebizitzaren jabetza segurtasunaren eta kidetasun sentimenduaren adierazle argia delako eta, laguntza behar izan arren, etxean jarraitzeko gogoia sendotzen duelako.

Alabaina, etxebizitzak irisgarritasun arazoa badu, adibidez, segurtasun hori pertsonen kalterakoa bihurtzen da eta erabakiak hartzea zailtzen du, datuek argi eta garbi adierazten dutenez. Laguntza behar izan arren, Euskadiko adinekoen % 83,4k etxean bizitzen jarraitzea nahiago du, etxetik kanpo bizitzeko beste aukera batzuen aurretik. Adinean aurrera egin ahala, etxean jarraitzearen aldeko jarrera are handiagoa bihurtzen da, eta laurogei urtetik gorakoen % 89,3k ere lehenesten du hori. Etxetik kanpoko zaintzak nahiago dituztenen artean, % 4,3k baino ez luke ontzat joko seme-alabaren etxera joatea. Iritzi horiek ikusita, arreta ibilbide osoan pertsonen beharrezanean erantzungo dieten zerbitzuak dibertsifikatzeko premia ikusten du Matia Fundazioak.

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da herri erakundeek eta gizarte ekimenak (irabazi asmorik gabeko edo irabazi asmoko erakundeek) Gipuzkoan laguntza behar duten pertsonei emandako erantzuna.



Zaintzak emateko etorkizuneko joerak: erantzunkidetasuna

Aurretiaz emandako informazioak gizarte zahartua erakusten digu, batez ere autonomia eta osasuntsua baina gero eta laguntza eta zaintza sozioekonomiko gehiago beharko dituen.

Horrenbestez:

- Herri erakundeek ahalegin itzela egin behar dute herritarren ongizatea bermatuko duen gizarte babeserako sistema ziurtatzeko.
- Familia inguruak emandako laguntzak ezinbestekoa izaten jarraitzen du pertsonen premiei erantzuteko. Alabaina, duela gutxira arte gizartean indarrean egon den elkarrekotasun gizarte ereduak krisian sartu da, batez ere emakumeak lan esparruan sartu direlako, hain zuzen zaintzen konplexutasuna, intentsitatea eta iraupena biderkatu egin diren unean.

Horiek horrela, iraupen luzeko zaintzen ereduaren aldaketa historikoa dugu aurrean, eta erantzunkidetasuna izango da aurrerantzean oinarria: emakume eta gizonek, herri administrazioek, irabazi asmorik gabeko nahiz irabazi asmoko gizarte ekimenak, gizarte mugimenduek eta elkartegintzak indarrak bildu beharko dituzte, egoera hauskorrean dauden herritarren bizi kalitatea hobetzeko.

Horretarako, gure zaintza ereduaren etorkizuna hobetzeko balio duten irizpide batzuk barneratu beharrean gaude:

- Laguntzak pertsonalizatzea eta laguntzen ditugun pertsonen heterogeneotasuna aitortzea beraien beharrezkoak aztertzen ditugunean. Beraien nahiak eta lehentasunak funtsezkoak izango dira arreta eta bizi-plana zehazterakoan.

- Baliabideak (batez ere osasun eta gizarte baliabideak) egoki koordinatuz, arreta guztiak integratzea, pertsonen denbora eta toki egokian jaso dezaten arreta.
- Ahaleginen eta laguntzen osagarritasunean oinarritutako arretaren zeharkako ikuspegia lantzea.
- Zahartzen diren pertsonen behin eta berriro eskatzen duten «etxeko» arretan oinarritzea zerbitzuak ematean.
 - → Etxean bertan kalitatez eta ongizatez bizitzeko ahalegina egitea.
 - → Hori posible ez bada, gure arreta eredua «etxearen» ahalik eta berdinen izeateko ahalegina egitea.

Erronka estrategikoak / Politikak

ERRONKA NAGUSIA: arreta eredua garatzen jarraitzea

Matia Fundazioaren misioarekiko lotura estua du erronka horrek; alegia, pertsonen zahartze prozesuan laguntzea, haien ongizatea hobetzeko eta haien autonomia eta duintasuna sustatuko dituzten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortzeko. Erronka horren barnean kokatzen ditugu Matia Eredua garatzeko jarduketak, gizarte eta osasun zentroetan, etxeko esparruan nahiz gizartean jorratzen ditugun zerbitzu, ekintza eta programen bidez.

Gizarte eta osasun zentroetan

Matia Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak hitzarmenari esker sortu zen Etxean Ondo ikerketaren (2011-2014) bidez, laguntza eredu tradizionaletik pertsonarengan ardaztutako arreta eredurako bilakaera gauzatzeko oinarriak finkatu ditu Matia Fundazioak. Hau da, pertsonengan, beraien interesetan, duintasunean eta pertsonalizazioan oinarritutako den arreta eredu baterantz jotzeko oinarriak.

Urteotan, ikerketa horretan sortu diren ikaskuntzen eta ezagutzaren ondorioz identifikatutako hobekuntza jarduerak jasotzen dituen bide orria ezartzen aritu dira Matia Fundazioaren zentro soziosanitarioak. Gidalerrotzat identifikatu diren funtsezko bost elementuren inguruan ardaztu da aldaketa, oraindik ere abian dagoena eta egongo dena. Hauek dira bost elementuok:

Pertsonengan ardaztutako arreta ereduan (aurrerantzean, PAE) trebatzeko eta eredua ezartzen laguntzeko lana, eredu berri horrek eskatzen duen portaera eta kultura aldaketa sustatzeko asmoz.

1. Langile gutxiago txandatzeko laguntza behar duten pertsonekin, elkar ezagutzaren bidez, pertsonalizazioa areagotzeko eta arreta duintzeko.
2. Pertsonaren ohiturak, lehentasunak eta aurreikuspenak identifikatzeko eta baloratzeko jarduna sendotzea, informazio hori guztia Arreta eta Bizitza Planeari txertatuko dela bermatzeko.
3. Erreferentziako profesionalaren figura jorratzea, konfiantzazko pertsona ez ezik, eskaintzen diren zaintzen eta arretaren bermatzailea ere izan dadin.
4. Ingurunea aldatzea, giroak dibertsifikatzeko eta etxean bezala bizitzeko aukera eskainiko duten guneak sortzeko.

Gizarte arloa

Aipaturiko bost arloetan arreta eredua hobetzen jarraitzeko unea heldu zaigu (zentrotik zentrori aurrerapausoak handiagoak edo txikiagoak izan diren arren, eta Petra Lekuona zentro berria ere jardun horretan sarturik), zuzeneko arretan kultura aldaketa areagotuz.

- Horretarako, egoitza arretarako baliabide gehiago ezarri dira 2016ko hasieratik aurrera.

- Egoitza zentro bakoitzean, zuzeneko arretako taldeen lanean metodologia ia experimentalak erabiltzen hasi gara. Helburua: arretako jardunbiderik egokienak zehaztea, tratu onaren eta pertsonarengan ardaztutako arretaren esparruan.
- Institutuarekin lankidetzan, ikerketako/jarduneko proiektuak abiarazteko oinarriak ezarri dira, arreta eredua aldatzearen onurak agerian jartzeko asmoarekin.
- Egindako proiektu guztiak eta sortutako ebidentzia guztiak administrazioarekin partekatuko dira, herri erakundeek erabili ahal izateko.

Osasun arloa

16

PAEren printzipioak txertatzeko bidean, ibilbide laburragoa egin da osasun arloan, gizarte arloan baino. Horregatik, datozen urteetan eredu hori ezartzeko konpromiso argiagoa eskatzen dugu errehabilitazio anbulatorioan nahiz ospitaleetan, berrikitan OMEk pazientearengan oinarritutako arretari buruz adierazitakoaren ildotik.

→ Pazientearen segurtasuna

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak 2013-2020 aldirako zehaztu dituen osasun politiken ildotik, pazientearen segurtasunari buruzko jarraibideak txertatzen jarraituko dugu geure arreta ereduan. Izan ere, osasun arretaren prozesuan pazienteari min saihegarrik ez egitea azpimarratzen du politika horrek. Esparru horretan, nabarmentzekoa da zer-nolako garrantzia duten arreta farmazeutikoak eta Ospitaleko Farmazia Zerbitzuak, artatzen ditugun pertsonen ongizatea hobetzeari dagokionez. Horregatik, medikazio hutsak murrizteko proiektu berritzailea lantzen dihardugu, medikamentua emateko prozesu osoan trazabilitatea eta segurtasuna bermatuko dituen.

Gure iritzian, beste zentro soziosanitario batzuetarako ere baliagarriak izango dira proiektuaren bidez eskuratuko ditugun esperientzia eta ezagutza, beraien arretaren emaitzak hobetzeko aukera emango diete eta. Bukatzeko, hurrengo etaparako bi helburu nabarmendu nahi ditugu: ospitaleko segurtasun plana garatzea eta txertatzea, eta DIAS nazioarteko estandarra eskuratzea gure osasun zerbitzuetan.

→ Arreta geriatrikoa

Narriadura kognitiboa eta orotariko dementziak dira zahartzen ari zaigun gizartearen erronkarik kezagarrienetakoak. Batez ere portaera nahasmenduak sortzen direnean eta familiaren erantzun gaitasuna gainditzen dutenean. Halakoetan, askotan, familiak amore eman behar izaten du, eta eramateko zaila den porrot sentsazioarekin bukatu.

Beste alde batetik, adierazle positibo batzuk biltzen hasiak gara pertsonengan ardaztutako arreta eredua erabiltzen duten egoitza unitateetan bizi diren eta profil psikogeriatricoa duten pertsonen ongizateari lotuta. Horregatik, zaintzen ibilbide osoan profil horien berrikuntza areagotzea da gure lehentasunetako bat.

Gure egungo errealitatean, laguntza baliabideetako unitate psikogeriatrico bakoitza bere kontura eta bakarka ari da eredua berritzeko lanean. Horregatik, etapa berri honetan arreta

psikogeriatrikoa denok batera lantzea proposatzen dugu, ikuspegi integral batetik egiteko aurrera.

Horrela, diziplinarteko ezagutza garatu eta zerbitzu eta baliabideetan (ospitaleetan, kanpo kontsultetan, egoitzetako psikologia integraleko unitateetan, eguneko zentroetan eta etxeko etxeko arreta zerbitzuetan) sortutako ezagutza bilduko duen prozesua sortu nahi dugu. Arretako ibilbide integralak diseinatzea eta eskaintzea da helburua, nazioarteko joerekin bat etorriko direnak eta pertsonen eta familien beharrezan erantzungo dietenak.

→ Errehabilitazio anbulatorioa

Errehabilitazio anbulatorioko pazienteen osasunean eta ongizatean lortutako emaitzak askotarikoak izan dira. Ez dugu inolako ebidentziarik teknika edo teknologia jakin batzuk patologien eta egoeren arabera beste batzuk baino hobekien diren jakiteko.

Pazienteen gogobetetasun indizean oinarritu izan dugu, tradizioz, gure ebaluazioa. Badakigu termometro garrantzitsua dela eta gure jardura ebaluatzen erabiltzen jarraitu behar dugula. Alabaina, hobekuntza terapeutikoan aurrera egitea da hurrengo etapan finkatu nahi dugun helburua, eta artatzen diren patologietarako tratamendurik eta teknikarik onenak zehazten lagunduko diguten ebidentziak bildu beharko ditugu horretarako.

Ettxeko esparrua

Matia Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak hitzarmenari esker sortu zen Etxean Ondo ikerketaren (2011-2014) bidez, etxean ere arreta zerbitzu integratua ezartzeko oinarriak finkatu ditu Matia Fundazioak, gizarte, osasun eta hurbiltasun zerbitzuak koordinatuta. Zerbitzu hori ere pertsonengan, beraien interesetan, duintasunean eta pertsonalizazioan oinarrituta dago. Izan ere, pertsonak behin baino gehiagotan adierazi dute etxean bizitzen jarraitzea nahiago dutela, laguntza behar dutenean ere bai. Gogo horri erantzutea da Matia Fundazioaren nahia.

→ Matia Etxean

Etxean Ondo proiektuaren ikerketa fasean nahiz jardunean eskuratutako ezagutzari esker — 500 etxebizitzatan aritu gara eta 20.000 zerbitzu ordu baino gehiago eman ditugu proiektu pilotuan —, Matia Etxean etxeko arreta zerbitzu integrala abiarazteko oinarri kontzeptual eta esperientzial nahikoa dugula esan dezakegu, ziurtasun osoz. Ikerketaldiak frogatu zigun planteamendu eraginkorra dela, eta kostutan efizientea sistema soziosanitarioarentzat. Fase esperimentaletik harago, eskala handiago batera jotzeko unea heldu delakoan gaude, aurrera egiten jarraitzeko. Laguntza zerbitzu integrala eskaini nahi dugu, pertsonengan ardaztua, beraien beharrezan eta lehentasunekin bat eta laneko bost alderdi hauen baturan eta koordinazioan oinarrituta:

- Kasuaren kudeaketa: gure iritzian, kasuaren kudeaketa da arretaren osotasuna eta jarraitutasuna bermatzeko metodologiarik egokiena. Oinarria hau da: pertsonak behar litzakeen gizarteko, osasuneko eta hurbileko baliabide guztiek koordinatuta aritu behar

dutela. Horretarako, arreta plan integrala eta banakakoa egiten da: taldeko diziplina anitzeko profesionalek pertsonaren egoeraren balorazioa egiten dute, pertsonaren beraren eta familiaren parte-hartzearekin, eta pertsonaren ohituretan eta lehentasunetan oinarritutako helburu bateratu batzuk zehazten dituzte. Matia Fundazioak duen kudeaketa tresna informatikoak funtsezko laguntza eskaintzen du kasuen jarraipena, koordinazioa eta kudeaketa egiteko.

- Laguntza pertsonala: ezinbestekoa da erreferentziako profesional bat izendatzea, etxeko ingurunean konplexutasun handiena duten eta *expertise* handiagoa eskatzen duten zaintzak ikuskatu eta jorratzeko eta, azken buruan, banakako arreta planean zehaztutako helburuak lortzeko. Profesional hori ohiko zaintzaileentzako (profesional nahiz senideentzako) aldian aldiko errefortzua izango da, erabiltzaileei eta beraien familiei proposamen lehiakorra eta jasangarria eskaintzeko. Horrexegatik, hain zuzen, laguntzaile pertsonalaren figura erreferentziako profesionala izatea proposatzen dugu.
- Zaintzaileak: laguntza premia handia denean, etengabeko laguntza izango da zaintzaren oinarria. Era askotan antola daitekeen arren, errealitateak erakutsi digu etxeko langileengana jo ohi dela zaintzen ordu gehienak betetzeko. Izan ere, etxez etxeko zerbitzu publikoek arintasun eta malgutasun handiagoa lortzeko eta prezio lehiakorragoak izateko erronkari egin behar diote aurre. Horrenbestez, Matia zerbitzuak, beste eragile batzuekin lankidetzan, kalitateko zaintzaileen zerbitzua eratu nahi du, etxez etxeko laguntzen eta zaintzen zati handi bat bete dezan. Zaintzaileek etengabeko gainbegiratzea eta prestakuntza izango dute, batez ere kasuaren kudeatzailearen eskutik, Matia Etxea proiektuan integratuta egongo direlako.
- Etxez etxeko arreta geriatrikoa: arlo publikoak betetzen ez dituen gizarte eskarien alorrean, terapeuta okupazionalen etxez etxeko geriatriako kontsultak, etxez etxeko errehabilitazioa eta etxebizitza egokitzeko aholkularitza lana jorratu nahi ditu Matia Fundazioak. Ildo beretik, aurrez aurrekoak ez diren kontsultak ahalbidetu nahi ditu, familiek nahiz profesionalek izan ditzaketen zalantzak argitzeko, tratamendua doitzeko eta abarrekoak egiteko. Horri esker, adinekoak kontsulta espezializaturako joan-etorriak egin beharra saihestuko litzateke. Azkenik, funtsezko aliatuekin estimulazio kognitiborako programak sustatzea, duela urte batzuetatik hona lantzen ditugun Orekako eta Ibiliko programak sendotzea eta Gipuzkoako herritarren hauskortasuna prebenitzeko edo suspertzeko programak jorratzea.
- Matia Etxean zerbitzuak pertsona bakoitzari egokitutako hurbileko beste zerbitzu batzuk ere hartzen ditu, hala nola etxez etxeko ile apainketa, podologia, liburutegia, farmazia eta beste, kasuaren kudeaketa integraletik bideratuta betiere.

Gizarte esparrua

Matia Fundazioaren misioak muga instituzionalak eta etxeetako mugak gainditzen ditu, eta gizarte osora zabaltzen da, gizarte sare osoaren sentsibilizazioa eta partaidetza sustatzen duten programak eta proiektua ere jorratzen baititu.

Zahartzeari heldu nahi badiogu, XXI. mendeari begiratu behar diogu eta adinekoek ongizate estatuari eusteko eta eskubide osoko herritar gisa duten eginkizun garrantzitsua aitortu behar

dugu. Zahartzaroaren inguruko kontzientzia soziala sustatzeko apustua egiten du Matia Fundazioak.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak eta beraien senideek beste pertsona batzuekin harremana izatea bultzatzen dugu: adiskideekin, boluntariotza sareekin, auzokideen elkarteekin edota, oro har, beraien ongizatea hobetuko duten eta bizi proiektuari eusteko aukera emango dieten orotariko ekimen guztiekin.

Ezinbestekoak dira gizarteko partaidetza, zahartzaroaren inguruko kontzientziazioa eta sensibilizazioa, bai eta laguntzaren eta orientazioaren bidez eskuratu dugun ezagutza gizarte osora zabaltzea ere. Azken buruan, guzti-guztiokin lagunkoiagoa eta solidarioagoa izango den gizartea sustatu nahi dugu.

→ Matiazaleak

Gizartean parte hartzeko mugimendua da Matiazaleak. Helburua: Matia Fundazioak zahartzearen esparruan dituen balioak gizarte osora zabaltzea. Gipuzkoako gizartearekiko konpromiso tinkoarekin sortzen da, mendetasuna duten adinekoek eta desgaitasuna dutenek bete gabe dituzten premiei eta Matia Fundazioaren sareko elkarte eta erakundeek dituztenei erantzuteko. Matia Fundazioaren egoitzetan bizi diren pertsonak, adinekoen ongizatearen alde lan egiten duten elkarteak eta zahartze prozesuaren alorrean ikertzeko proiektuei erreparatzen die nagusiki.

Sistemaren bidez estaltzeko aukerarik ez dutenean, beraien ametsak betetzen eta esparru horietan antzemandako beharrak eta gabeziak estaltzen ahalegintzen da Matiazaleak, Gipuzkoako gizartearekin batera. Programa abian jartzeko funtsezkoak izango dira (batez ere lehen urteetan) barne komunikazioko plana, kanpoko komunikazioa eta bazkideak banaka nahiz erakunde gisa erakartzeko plana, betiere gardentasun osoa ardatz eta dagoeneko planifikatuta dauden ekimenei jarraitutasuna emateko bidean.

→ Matia Orienta

Matia Orientaren helburua hau da: zahartzen diren pertsonak eta beraien senideei, sektoreko profesionalak eta Matia Fundazioko profesionalak zahartzearen eta desgaitasunaren alorreko iraupen luzeko zaintza prozesuei buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzea, zerbitzuetan, baliabideetan eta ibilbideetan erantzun arina eta integrala emateko asmoz.

Gaur egun mendekotasunaren arretaren alorrean dauden zerbitzu, zentro, jarduera eta laguntzen inguruko zalantzak dituzten pertsonak doako informazioa eskaintzeko erreferentzia sendoa izan nahi dugu.

Beti ere zaintzen jarraitutasuna bermatzea helburu, eta bertara jotzen duten lehentasunak eta premiak aintzat hartuta.

Honako ekintza hauek hezurmamitzen dute datorren aldirako lan estrategia:

- Barneko zabalkundea, gure zentro eta zerbitzuetako zaintzen koordinazioa eta jarraitutasuna hobetzeko. Hala, Matia Fundazioaren zerbitzu sarearen baitan, berezko izaera duen zerbitzu gisa finkatu nahi dugu.
- Kanpoko zabalkundea, alde batetik zerbitzua areago ezagutzera emateko eta, beste alde batetik, familiei, erabiltzaileei eta sektoreko profesionalei aholkularitza emanez ebatzi diren kontsulten eta kasuen kopurua handitzeko.

→ Matia Fundazioa eta lagunkoitasun mugimendua

Adinekoekiko lagunkoiak izango diren hiri eta komunitateen proiektua Osasunaren Mundu Erakundearen esparruan jarri zen abian 2005ean, mundu osoan azaleratzen ziren bi joera aintzat hartuta: biztanleriaren zahartzea batetik eta urbanizazio prozesua bestetik. Hauxe da proiektuaren helburua: zahartzen diren pertsonen bizitza errazteko inguruneak sortzea eta, aldi berean, adinekoak protagonista diren herritarren partaidetzako mugimendua sustatzea. Zahartze aktiboaren paradigmatik azpian dagoen teoriarik oinarritzen da, eta tokian-tokian gauzatzea da asmoa.

«Zahartze aktiboa sustatuko duen hiri eremu integratzailea eta irisgarria da adinekoentzako ingurune lagunkoia» (OME, 2007).

Matia Institutua erakunde aitzindaria da Estatuan, mugimendu horretan parte hartzeari dagokionez. 2009an, «Donostia, adinekoekiko hiri lagunkoia» proiekturako (Donostia Estatuko lehen hiria izan zen mugimendu horri atxikitzen) diagnostikoan parte hartu zuenetik aritzen da programarekin bat eta, 2012az geroztik, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako «Euskadi Lagunkoia» proiektua bultzatzen, diseinatzen, garatzen eta koordinatzen du. Ekimen hori mundu osorako erreferentzia bihurtu da, dagoeneko 30 udalerrri baino gehiago atxiki baitaizkio eta 200 eragile baino gehiago aritzen baitira elkarrekin lanean, lagunkoitasunaren alde.

Euskadi Lagunkoia proiektuaren lan planteamenduak Euskadiko herri, inguru eta hiri guztietan bultzatu nahi du mugimendua. Udalerrri txikienei ekimenean sartzen laguntzen die, eta udalerrriak, erakunde pribatu, publiko eta sozialak eta pertsonak bilduko dituen sarea sustatzea du helburu.

Horregatik, udalekin, elkarrekin, enprekin eta herritarrekin elkarlanean jarduten du, helburu erkide baten alde: bizitza errazten duten inguruneak sortzea, haietan elkarrekin bizitzeko.

Lagunkoitasun programan, adinekoak dira eguneroko bizitzan islatuko den ongizatea sortzeko prozesuaren protagonistak. Izan ere, era arrazionalagoan berreskuratu nahi dira espazio publikoak, herritarren arteko harremanak, zaintzen transferentziak eta, orokorrean, udalerrietako eguneroko bizitza gizatiarragoa eta guztiontzako atseginagoa egiten duten gauza txiki horiek guztiak.

Nazioartean harrera ona izan duten dokumentuak ere landu dira proiektuaren esparruan (metodologiari, prestakuntzari eta sentsibilizazioari lotutakoak); hain zuzen, erabiltzeko

interesa adierazi duten erakundeetako batzuek ingelesera ere itzuli dituzte. Adinekoen ahalduntzerako tresnak abiarazteko eta beraien ingurunean bizi kalitatea hobetzeko proposamenak lantzeko ikerketan, diseinuan eta jardunean punta-puntako erakunde gisa agertzen da Matia Institutua.

Hona hemen Matia Institutuaren datozen urteetarako helburuak lagunkoitasunaren alorrean:

- Lagunkoitasunaren inguruko adituen nazioarteko sareetan parte hartzea eta alor horretan ari diren sare eta proiektuetan aritzea, hala nola Aldaketa Demografikoaren aldeko Europako Hitzarmenean (AFE-InnOVnET), European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing (Elp-AHA) erakundearen «Action Group d4 Innovation for age friendly buildings, cities and environments» taldean. Ildo horretan bertan, Europako Batzordearen 2016ko Reference Sites deialdirako aurkeztea gure esperientzia, jardunbide egokitizat. Helburua, betiere, ezagutza, metodologia eta jardunbide berriak ikasten eta barneratzen jarraitzea da.
- Estatuko erreferentzia izatea eta Estatuko beste hiri eta lurralde batzuetara eramatea ekimena. Bestelako ezaugarriak dituzten tokietan abian jarritz gure esperientzia handitzea, proiektuaren garapenean ikasten jarraitzeko.
- Alor horretako jardunbide egokiak eta dokumentazio berria sortzea, eta narriadura kognitibo arina duten pertsonak lagunkoitasunaren ekimenean sartzea, dementzia duten pertsonentzako ingurune lagunkoiak lortzeko bidean.
- Zeharkako eragile publiko, pribatu eta sozialekin sarean lan egitea, programa are gehiago indartzeko eta egonkortzeko, eta ikuspegi osagarriak eskuratzeko.
- Inguruneak egokitzeko mugimendua sustatzea, adinekoen eta herritar guztien bizi kalitatea handitzeko asmoz, eta herritarren erantzunkidetasunaren kultura eta adinekoen ahalduntzea bultzatzea.
- Ikasitakoa beste eragile batzuekin partekatzea, eta urteotan eskuratu ditugun ezagutzak eta ikaskuntzak zabaltzea.

1. LAGUNTZA ERRONKA: arreta ereduaren garapenari lotutako ebidentziak sortzea, I+G proiektuen bidez

Honako hauek bilatzen dituzte erronka honetako ekintza planek: proiektuak partaidetzaz (ikertzaile eta laguntzako profesionalek parte hartuta) identifikatzea; ezagutza biltzea eta sortzea; pertsonengan ardaztutako arreta eredia ezartzearen ondoriozko aldaketen eta berrikuntzen inpaktua ebaluatzea, ebidentziak sortzeko asmoz; eta, azkenik, lortutako emaitzak eta ezagutzak barnera begira eta gizarte osora zabaltzea.

2011. urteaz geroztik, arreta eredia hobetzeko ibilbidea lantzen ari da Matia Fundazioa, bere zentroen ezaugarrietara doitzeko xedez: alderdi fisikoak eta arkitekturari lotutakoak, profesionalen antolakuntza eta jardunbideak, pertsonen laguntza behar dutenean aukeratzen duten arreta emango duten inguruneak...

Ildo horretan, epealdi horretan Matia Institutuak egindako azterlanek berretsi egin dute ezarritako aldakuntzek eragin positiboa dutela gure egoitzetan bizi diren pertsonen ongizateari lotutako zenbait alderditan eta profesionalen jardunbidean, eta senideen gogobetetasun maila ere handitu egiten dela.

Lanek nabarmendu egin dute profesionalen jarrerak eta jardunbideak oso garrantzitsuak direla, kalitateko arreta pertsonalizatuta ematekotan. Ondorioz, pertsonarengan ardaztutako Matiaren eredia ezartzeko bideak bat etorri behar du Fundazioaren kultura aldaketarekin, eta arreta berezia egin behar die zentroetako profesionalak trebatzeko eta laguntzeko ekintzei, bai eta ekintza horien ondorioei lotutako ebidentziei ere, artatzen ditugun pertsonen lehenetasunak errespetatuko dituen arretaren kultura sortzen jarraitzeko.

Lan ardatzak

Ikerketaren helburuak eta proiektuak partaidetzaz identifikatzea.

Nazioartean kalitateko arretaren ebaluazioari eta esku-hartzeari buruzko ikerketa ildoak garatzen diren heinean, nabarmendu egiten da nazioko nahiz nazioarteko instituzioen arteko sareak sortu behar direla, kalitate estandar nahikoei eusteko. Eta, horrekin batera, eta barnera begira, kultura eraldatzeko prozesuarekin bat, arretako eta ikerketako lankidetzaren sareak sustatu behar dira, ebidentzia zientifikoak eta esperientzia profesionalak trukatzeko eta, horri esker, ikertutako eta aplikatutako esparruari egokitutako ikerketa proposamen berriak sortzeko.

Hala, arreta berezia egingo zaie tratu onari lotutako determinatzaileei eta konpetentziei, eta batez ere beren eskubideak defendatzeko baliabide gutxien dituzten pertsonen dagokienez, egoera ahulenean daudelako.

Erakunde barnean ezagutza barneratzeko eta sortzeko jarduna sustatzea.

Jardunbide profesional handiko profesional trebatuen eta inplikatuaren premiari erantzutea da lan ardatz horren oinarrietako bat. Bestea, berriz, arreta emateko eta antolatzearen era berrien ondorioz sortzen den ezagutza garatzea eta agerian jartzea.

Proiektuak garatzeko talde mistoak sustatzea.

Aurreko aldian heldu genion bide horri, baina oraindik badugu zereginik laguntza alorreko eta ikerketa alorreko helburuak bateratzeko bidean. Horregatik eusten diogu lan ardatz horri, talde guztiak (teknikoak, prozesukoak eta hobekuntzara zuzendutakoak) mistoak izan daitezen eta bi errealitateak partekatze eta batzuen eta besteen beharrianak, aurreikuspenak eta ideiak ezagutuz, lanak eta emaitzak hobetzeko.

Zuzeneko arretan ari diren taldeen emaitza maximizatzeko asmoz, garrantzitsua da Matia Institutuko ikertzaileak eta adituak zuzeneko arretako taldeetan sartzea, ideiak sortzen laguntzeko, laguntza metodologikoa emateko eta sektoreko ezagutza eguneratua eta aurrerakuntzak hornitzeko. Ardatz hori indartze aldera, gaur egun laguntzako lanak egiten dituzten diziplina arlo guztietako kideak Institutuan sartzeko aukera aztertuko da, ezagutza sortzen laguntzeko.

Arreta eredua ezartzeko eta ebaluatze baliabideak sortzea.

Arreta pertsonalizatuko ereduen esparru kontzeptualera egokitutako baliabide teknikoak eta prestakuntzako baliagarritasuna jarri du agerian Matia Fundazioak eta Institutuak egin duten ibilbideak. Ildo horretan, ikus-entzunezko materialak, prestakuntzarako materialak eta ebaluazio tresnak egin ziren aurreko aldian, eta harrera bikaina jaso zuten Estatuan.

Dagoeneko jorratzen hasia den bide horrek jarraitutasuna izango du eta, besteak beste, pertsonarengan ardaztutako arretaren ezarpen maila ebaluatze eredua eta tratua ona sustatzeko prestakuntza materialak jorratzea izango da hurrengo urratsa.

Emaitzak erakunde barnean nahiz kanpoan zabaldu behar dira, sortutako ezagutzaren eta berrikuntzaren inpaktua ahalik eta handiena izan dadin. Horretarako bideak dira, besteak beste:

- Matia Fundazioko profesionalentzako saioak.
- Sektoreko profesionalei zuzendutako Matia Foroa.
- Zahartzearen eta desgaitasunaren arloan aitortza zabala duten kanpoko foroetan plazaratutako argitalpenak, txostenak eta komunikazioak.

Ikerketako edo laguntzako jarduerak eta proiektu guztiak abian jartzen diren unetik bertatik planifikatuko da zabalkuntza lana, lantalde bakoitzerako helburu zehatzak ezarrita.

2. LAGUNTZA ERRONKA: arreta ereduaren jasangarritasuna sustatzea

Matia Eredua (eta batez ere haren alderdi ekonomikoa eta soziala) jasangarria izango dela ziurtatu nahi badugu, ezinbestekoa izango da gizartean dugun inpaktua handituko duten zerbitzu berriak sortzea, zentroen okupazio maila eta zerbitzuen jarduna optimizatzea, beharrian konplexuak dituzten pertsonen arretan espezializatzen joatea eta gastuak eta sarrerak egokitzea.

Matia Fundazioa irabazi asmorik gabeko eta interes orokorreko fundazio pribatua da, jasangarritasuna helburu duena. Jasangarritasuna globaltasunean eta zeharka ulertzen dugu: egungo beharrianak ziurtatzea baina etorkizunekoak kolokan jarri gabe, eta gizartea eraikitzen laguntzea eta bera osatzen duten kide guzti-guztien ondasun erkideari ekarpena egitea, ondasun hori banaezina baita eta soilik guztion lankidetzaren bidez eskuratu, handitu eta babestu ahal baitugu.

Halatan, Matia Fundazioaren misioaren inpaktua maximizatu egin nahi dugu, eskura ditugun baliabideak eta ondarea erabiliz.

Horrenbestez, gure inpaktu sozialak iraun dezan, arreta ereduaren oinarritutako jarduerak jorratzeaz gain, dimentsio anitzeko jasangarritasuna landu beharko dugu, gurekin harremana duten eragileak eta elementuak ere jasangarriak izanik.

Ohikoa da (eta areago gaur egungo egoera ekonomiko konplexuan), jasangarritasunaz aritzen garenean diru kontuak bururatzea. Alabaina, gure konpromisoa harago doa: geure jardunaren alderdi guztietan izan behar dugu jasangarriak, Fundazioaren inpaktua iraunkorra dela ziurtatzeko.

Lan ardatzak

Zentroen okupazioa eta zerbitzuen jarduerak optimizatzea, ahalik eta pertsona gehienengizatea hobetzen laguntzeko.

Premia aurreratu eta konplexuak dituzten pertsonen arretan espezializatzea.

Gure misioaren inpaktua areagotzea ahalbidetuko diguten zerbitzu berriak sustatzea: zerbitzu iraunkorrak, finantzaketa publikoaz harago bestelako finantzaketa ere izango dutenak.

Gastuak eta sarrerak orekatzea.

3. LAGUNTZA ERRONKA: arreta eredia garatzeko egokitzea erakundea

Erronka horrek kudeaketa eredia eta pertsonen arteko harremanen eredia eraldatu nahi ditu, Matia Eredua ahalik eta irismen handiena izan dezan. Laguntza eredu berritzailea, pertsonengan eta beraien gustu eta interesetan ardaztua. Pertsonak kudeatzeko prozesuak eta kudeaketa sistemak daude erronka horren aurrealdean, horietako bakoitzaren ekintza planak tarteko. Horien artean nabarmentzekoak dira balio bidezko kudeaketa eta Matia Fundazioa osatzen duten erakunde guztietan integratzea kudeaketa eredia.

Matia Eredua garatzekotan, nahitaezkoa izango da profesional trebatuak, motibatuak eta inplikatuak izatea. Era berean, gure misioari erantzungo dioten eta hura indartuko duten balioetan oinarritu beharko dugu guztion arteko eta kanpoko eragileekiko harremana.

Lan ardatzak

Balio bidezko kudeaketan oinarritutako kultura aldaketan aurrerapausoak ematea.

Erakundean kultura aldaketa gauzatzea da asmoa, guztion artean zehaztu ditugun balioetan oinarrituta egon dadin. Gure misioaren eta ikuspegiaren ondoriozko balioetan oinarrituko den kudeaketa eredia ezarri nahi dugu. Horretarako, funtsezkoa da balioak erakunde oso-osoan zabaltzea, bertako pertsona guztiek ezagutu eta onartu ditzaten, eta beraiekin bat egin dezaten. Balio horiek zabaltzea da guztion partaidetza bilduko duen kultura libreago baterako aldaketa gauzatzeko bermea.

Erakundeetan kudeaketa eredia partekatu eta jorratzen jarraitzea.

Matia Fundazioa osatzen dugun erakunde guztietan kudeaketa eredia txertatzera bideratutako ekintza guztiak biltzen ditu lan ardatz horrek. Horretarako, jorratzen ditugun jarduerak guztiak jasotzen dituen prozesuen mapa bakarra erabiliko dugu, lau erakundeetako pertsonen osatutako lantaldeak osatuz.

Bateratze estrategia horrek plangintzako, garapeneko eta ebaluazioko jardueretara zuzendutako baliabide guztiak optimizatzen ditu, eta homogeneousatu egiten ditu profesionalen jardunak eta harremanak erakundeekin, hornitzaileekin, familiekin eta gainerako interes taldeekin.

Erakunde guztietako jardunbide egokien ezarpena eta beharrianen integrazioa bermatu beharko du integrazio prozesu horrek. Beste alde batetik, eta balio handiena dakarren kontuetan zentratuko gara bermatzeko, kudeaketa tresnak (auditoriak, gogobetetzeari buruzko azterketak, agente taulak...) pertsonengan ardaztutako arretak eskatzen dituen aldagietara egokitzeko helburua finkatu du erakundeak.

4. LAGUNTZA ERRONKA: kanpo lankidetza sustatzea, arreta eredia garatzen laguntzeko

«Batera indartsuagoak gara» izan liteke erronka horren lema. Gure ustez, gure misioaren inpaktua biderkatzea ekarriko dute beste eragile batzuekiko sareko lanak, zeharkako lankidetzak eta osagarritasunak.

Aurretik aipatu ditugun erronketan zehaztu dugun bezala, lankidetza horrek jasagarria izan behar du, eta gure balioak izan behar ditu oinarri. Honako hauek, hain zuzen: konfiantza, komunikazioa, jarrera positiboa eta gainerakoen aitortza.

Lan ardatzak

Alderdi estrategikoetan lankide izango ditugun kanpoko eragile kritikoen multzoa identifikatzea, guztion artean geure inpaktua handitzeko.

Horretarako, lanerako esparru bateratua zehaztea proposatzen dugu, balio eta printzipio horietan oinarritutako harremana jasoko duen hitzarmen baten bidez. Gure iritzian, hitzarmen horiek Interneten argitaratu eta etengabe eguneratu behar dira, mundu guztiak eskura izan ditzan.

Irabazle/irabazle estrategian oinarritutako proiektu erkideak zehaztea.

Lankidetza esparrua zehaztu eta elkarlana jorratzeko unean, garrantzitsua da identifikatzea bi aldeentzako helburuak bilduko dituen proiektua, zer baliabide erabiliko diren, nor diren arduradunak eta zer epealdi egongo den helburuak gauzatzeko.

Lankidetza hitzarmenen ebaluazioa eta jarraipena.

Azkenik, adi egon behar dugu eta etengabe galdetu behar diogu geure buruari ea proiektuetara bideratzen ditugun baliabideek nahi dugun emaitza lortzen duten, jarraitu ala birplanteatu egin behar diren erabakitzeko edota, hala badagokio, bertan behera uzteko.

Mehatxuak eta aukerak

Prozesu gehienetan arriskuak eta aukerak zehaztu dira, plangintzan eta prozeduretan beraiei egokitutako ekintzak txertatzeko helburuz.

Arriskua/aukera	Jarduera plana	Jarraipenaren arduraduna	Lehentasuna / Erronka
Jasangarritasuna finkatzea	Hitzarmena negoziatzeko estrategia partekatua Kontratazio taldea Absentismo estrategia	CEMI	2. laguntza erronka
Zentroen arteko ekitate gabezia	Egoitza arretako prozesuaren jasangarritasun taldea	CEMI	Erronka nagusia
Lidergo estila	Lider formalen antolamendu garapenerako estrategia	CEMI	3. laguntza erronka
Energia edo fokua galtzea, lan esparru gehiegi edukitzeagatik aldi berean irekita	Hausnarketa bateratua: institutura/laguntza prozesuak / kontsultoretza taldea / CEMI	CEMI	3. laguntza erronka
Pertsona gutxiren esku biltzea boterea/erabakiak	Taldeetako pertsonen partaidetza sustatzea taldeetan eta lidergo eginkizunetan	CEMI/DRES ETA ARDURADUNAK	3. laguntza erronka
Profesionalen harrobia ez da nahikoa	Alderdi hori hobetzeko hausnarketa bateratua	CEMI/DRES	3. laguntza erronka
Profil profesional jakin batzuk erakartzeko zailtasuna	Medikuak eta erizainak kontratatzeke estrategia	OSPITALEA / PERTSONEN ZERB.	Erronka nagusia
Proiektu berriak: Usurbil / Lugaritz	Lan instituzionalak Tokiko komunitatearekiko lana Lantaldea sortzea Adituak kontratatzea Danimarkarako bisita	CEMI / AZPIEGITURAK	Erronka nagusia
Etxean Bizi	Lan instituzionalak Komunitatearekiko lana Taldea mistoa (iker. / laguntz.) osatzea	PLANGINTZAKO DEPART.	1. laguntza erronka
Aurrera egitea galarazten digun laneko eta jarduneko legeria	Identifikatzea eta batzordearekin, taldeekin eta instituzioekin lan egitea	CEMI	2. laguntza erronka
Eroskeria eta ustelkeria	Zigor alorreko eskuliburua ezarri eta horretan trebatzea	CEMI	3. laguntza erronka
Jazarpena	Jazarpen alorreko protokoloa ezarri eta horretan trebatzea	SEGURTASUNA ETA OSASUNA	3. laguntza erronka

Interes taldeei entzutea


Ondoren, Matia Fundazioko interes taldeen beharrianak eta igurikimenak zerrendatuko ditugu.

Interes taldea	Entzuteko bideak	Igurikimenak	Erakundearentzako eskakizunak	Lehentasuna / Erronka
Erabiltzaileak eta senideak	Inkestak Foku taldeak Familien batzordeak Erabiltzaileen batzordeak EAZ	Laguntza eta zaintza prozesu egokia Arreta pertsonalizatua eta hurbila Pertsonari eragiten dionaren gaineko informazioa eta erabakitze ahalmena Ospitaleko altetarako laguntza	Laguntza prozesuen kalitatea eta etengabeko hobekuntza zaintzeko bideak Pertsonarengan ardaztutako arretan oinarritzea Zerbitzuak malgutzea. Arriskuak onartzea «Laguntzearekin» bat datozen profesionalak	Laguntza erronka nagusia eta 1. laguntza erronka
Profesionalak	EAZ Giroari buruzko inkesta	Egonkortasuna eta lan baldintza egokiak Hobekuntzan parte hartzea Lana aitortzea Komunikazioa hobetzea	Negoiazioako eta pertsonen eta segurtasun eta osasun prozesuetako eskaerak txertatzea Guztiok hausnartzeko eta parte hartzeko eremuak sustatzea	2. eta 3. laguntza erronkak
Foru Aldundia	Jarraipen bilerak	Hitzartutako zerbitzuak estaltzea eta lege baldintzak betetzea Proiektu berritzaileak identifikatzen eta garatzen laguntzea	Baldintzak identifikatu eta betetzea Instituzioak eta laguntza alorrak lan proaktiboa egitea ezagutzaren kudeaketan	Laguntza erronka nagusia
Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila	Jarraipen bilerak	Itunpeko zerbitzuak betetzea, lege baldintzak betetzea eta adostutako kalitatea bermatzea Proiektu berritzaileak identifikatzen eta garatzen laguntzea	Eskakizunak identifikatu eta betetzea, etengabeko hobekuntzarekiko konpromisoa autoebaluazioan Instituzioak eta laguntza alorrak lan proaktiboa egitea ezagutzaren kudeaketan	Laguntza erronka nagusia
Sozietatea	Matiazaleaken Batzorde Mistoa Lankidetzaren hitzarmenak Lankidetzaren bilerak	Zahartzearen eta desgaitasunaren inguruko politika hobekuntza bultzatzea	Lankidetzaren prozesuaren eta lan ildo instituzionalaren garrantzia	4. laguntza erronka

Identifikatutako erronka, aukera eta igurikimen guztiak ildo estrategikoei lotuta daude eta beraietako ekintza gisa txertatzen dira. Erronka nagusian (garrantzi handikoan) eta laguntza erronketan (garrantzi ertainekoetan) duten inpaktuak zehazten du zer-nolako lehentasuna eta garrantzia aitortuko zaion.

Identifikatutako premietarako erantzuna

Matia Fundazioaren konpromisoa zaintza behar duten pertsonekin: eraikuntza kolektibotik kultura aldatetara.



Agerian gelditu den bezala, Matia Fundazioak erronka handiak ditu aurrean laguntza behar duten pertsonen ongizatea hobetzeko bidean, etengabe aldatzen den gizarte trebatuago eta zorrotzago baten testuinguruan.

Erantzun egokia ematekotan, Fundazioak eraldaketa prozesu etengabea —pertsonala nahiz kolektiboa— jorratu behar duelakoan gaude.


Ibilbide horren abiapuntua ezagutzen dugu; ez, ordea, helmuga, prozesua bera baita ziurtasun bakarra.

Zahartzen ari diren pertsonen lehentasunei beha egon behar dugu beti, partekatutako balioetan eta ezagutzaren sorreran oinarrituta eraikitzen jarraitzeko.

Partaidetzako eraikuntzak ahalik eta irekiena izan behar duelakoan gaude. Gero eta jende gehiago erakarri nahi dugu eta, horregatik, prozesuaren emaitza ez ezik, prozesua egiteko modua bera ere nabarmendu behar da, erakundearen maila eta jarduera guztietan parte hartu duten pertsonen kopuru handia azpimarratuz. Hala, dimentsio anitzeko errealitate konplexu bateko pertzepzioak eta sentsibilitateak bildu eta proiektu bateratua, Matia Fundazioa, eraikitzeko aukera izango dugu.

Negozio eredua

Antolamendu egitura



Patronatua

Matia Fundazioa irabazi asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorreko izendatua, 130 urte baino gehiagoko esperientzia bildu duena Gipuzkoan zerbitzu soziosanitarioak eskaintzen. Esparru askotako 20 pertsona ezagunek osatzen dute fundazioaren patronatua, eta euren borondatez eta independentzia osoz hartzen dute parte haren gobernantzan.

Euskadiko Fundazioen ekainaren 2ko 9/2016 LEGEak arautzen du patronatua.

Osaera

Lehendakaria	María Carmen Garmendia Lasa
Lehendakariordea	María Luisa Guibert Ucin
2. lehendakariordea	Jesús M. Ferro Múgica
Idazkaria	José Luis Larumbe Martín

Idazkariordea

Pedro Calparsoro Damián

José Vicente Espín Zalacain

Kideak

Juan José Etxeberria Monteberria

Elisa Gascue Echebeste

José Manuel Giral Mañas

Luis Ángel Goenaga Lumbier

Adolfo López de Munain Arregui

Joaquín Oquiñena Perello

Rosario Segura Lasa

Miguel Ángel Segura Zurbano

Funtzionamendua

Patronatuaren bilera nagusia (urtean bi aldiz, edota aparteko deialdien ondorioz).

Estatutu propioak ditu.


Barne Erregimeneko Araudiak honako hauek xedatzen ditu:

- Patronatuaren definizioa.
- Patronatuko kideen karguaren definizioa.
- Patronatuko kideen izendapena eta Patronatua berritzeko jarduna.
- Patronatuko karguak.
- Patronatuko kideen beste betebeharrak batzuk.
- Batzordeak:
 - Batzorde Exekutiboa.
 - Izendapen Batzordea.
 - Auditoria eta Betetze Batzordea.
 - Beste batzorde eta ordezkaritza batzuk.

- Zuzendari nagusiaren izendapena.

Informazio guztia gure webgunean dago, gardentasun publikoa bermatze aldera.

ZAINTZEN JARRAIPENA



Ondoren, printzipio nagusiei buruzko informaziorik garrantzitsuena azalduko dugu.

Informazio eta Orientazio Zerbitzua:

Zerbitzua aurreko aldian antzemandako premiaren harira sortu zen; alabaina, Eusko Jaurlaritzak egindako «Zahartzen diren pertsonen ongizatea eta tratu ona hobetzeko 100 proposamen» dokumentuan ere agertzen da, eta bi alderdietan finkatzen ari da: alde batetik, zahartzearen eta desgaitasunaren alorreko baliabide, zerbitzu eta ibilbideei buruzko laguntza edo informazioa behar duen herritarrentzako orientazioa eskaintzearen alderdia eta, beste aldetik, Matia Fundazioaren barnean zaintzen jarraitutasunaren kontzeptua sustatzearena. 2013an sortu zenez geroztik, kontsulta kopuruak gorakada esponentziala izan du, 2017ko amaieran 1.200 baino gehiago egiteraino. Guztiak ere egoki ebatzi dira eta zerbitzu eskatzaileek gogobetetasun maila altua adierazi dute.

35

Birmingham ospitalea eta kanpo kontsultak:

Azken urteotan gora egin du Birmingham ospitaleko sarreraren kopuruak; 2018an, hain zuzen, 1.272 ospitaleratze izan ziren guztira (errehabilitazioan, psikogeriatrian, zaintza aringarrietan eta eriondoko sailean). Era berean, 1.900 kontsulta baino gehiago izan ditugu geriatrian eta psikogeriatrian, eta deszentralizatu egin dugu Goierri inguruko arreta, eskualde horretako pazienteak Zumarragako Argixao zentroan artatzen baitira. Azken urteotan behera egin du pazienteen batez besteko egonaldiak, eta 2015ean 25 egunekoa izan zen (egonaldi luzekoak aparte utzita). Kasuen % 91n, bete egin dira ospitaleratzeke unean planteatutako laguntza helburuak.

Artatutako pertsonen % 78k gizarte laguntza behar izan du alta hartu ondoren, eta % 55ek baliabide berri bat behar izan du edota aurretiaz zeukan laguntzako gizarte baliabidea luzatu egin zaio (etxez etxeko laguntza, batez ere).

Errehabilitazioa eta logopedia anbulatorioa:

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin itundutako zerbitzua da, 80 lagun inguruk (sendagile errehabilitatzaileek eta fisioterapeutek) 7 zentroan ematen dutena.

2015ean, orotariko patologiak dituzten 0 eta 100 urte bitarteko 7.6669 pertsonari eman diegu arreta. Artatu diren kasuen % 76tan patologia hobetzea lortu da.

Gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonentzako arreta psikosoziala:

La Caixa Gizartegintzak finantzaturako programa horren bidez, 1.011 lagun inguru artatu dira gaixotasunean eta dolualdian. Aldi berean jorratzen da Osakidetza sare publikoko ospitaleetan.

Egoitza zentroak eta eguneko zentroak:

Azken 15 urteotan, Matia Fundazioak bikoiztu egin du egoitzetako plazen kopurua, 450 toki izatetik 920 izatera igaro baita, horietatik 171 profil psikogeriatricoa dutenentzako plazak. Gure egoitza zentroetan bizi direnek 84 urte dituzte batez beste (azken 5 urteetan 2 urte egin du gora batez bestekoak), eta % 68 emakumea da.

Gure egoitza zentroetan artatutako lagunen % 83k eta eguneko zentroetan artatutakoen % 77k narriadura kognitibo arina edo larria du.

Azkenik, egoitza zentroetako egoiliarren % 95ek laguntza soziofamiliarra dauka eta hurkoek eta senideek presentzia eta parte-hartzea handia dute.

Matia Institutua:

Matia Fundazioaren zerbitzuak hobetzeko ezagutza sortzeaz gain, zahartzearen eta desgaitasunaren alorrean ari diren profesionali ezagutzak transferitzen jarraitu du Institutuak. Ildo horretan, adituen foro ugarian izan da eta, horrekin batera, zahartzen diren pertsonen ongizate handiagoa lortzeko ezagutzak, produktuak eta zerbitzuak garatzen eta plangintza gerontologikoa jorratzen aritzen diren eragile publiko eta pribatuekin batera jardun du I+G+b proiektuak lantzen.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin lotutako lankidetzak hitzarmenaren esparruan, Euskadiko 55 urtetik gorako bizi baldintzen azterketa (Euskadirako Active Ageing Index delakoa kalkulatzeko eta 2015-2020 aldirako Zahartze Aktiborako Euskadiko Estrategia prestatzeko oinarri gisa erabili zena) egin zuen Matia Institutuak.

Lankidetzak jardun horretan bertan eskaintzen du EAEko herritarren ongizatean inpaktu handia duen Euskadi Lagunkoia proiekturako laguntza teknikoa.

Beste alde batetik, etengabeko harremana du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Lankidetzak horren emaitzak dira, besteak beste, Sendian proiektua kudeatu izana edota, 2015ean, FIZPE (Familia inguruneko zaintzetarako laguntza ekonomikoa) azterlana eta etxeko zaintzak birformulatzeko «Etxean Bizi» proiektua.

SOZietatea

Informazio Ekonomikoa

KUDEAKETA TXOSTENA 2018-12-31N

PANEL DE INDICADORES
MATIA + GEROZERLAN
diciembre-18

INDICADORES			PRESUPUESTO	ACUMULADO				
			ANUAL	Presupuesto	Real	Año Anterior	Real - Ppto	Real - AA
Actividad	Social	Ocupación de Residencias	98,18%	98,18%	98,01%	97,96%	-0,17%	0,05%
		Ocupación de Centros de Día	95,85%	95,85%	91,49%	94,24%	-4,36%	-2,75%
		Horas prestadas Asistentes Personales	17.157	17.157	13.883	17.311	-3.274	-3.428
	Hospital	Ocupación Hospital	93,33%	93,33%	91,59%	94,20%	-1,74%	-2,61%
		Número de Altas del Hospital	1.208	1.208	1.354	1.338	146	16
		Estancia Media en Hospital	27,69	27,69	25,13	26,09	-2,56	-0,96
	Rehabilitación	Número de Tratamientos Realizados	168.551	168.551	161.268	165.773	-7.283	-4.505
		Número de Pacientes	7.116	7.116	7.646	7.561	530	85
		Número de Tratamientos por Paciente	24	24	21	22	-3	-1
	Logopedia	Número de Tratamientos Logopedia	11.260	11.260	13.201	10.286	1.941	2.915
		Número de Consultas Externas	4.984	4.984	6.056	5.101	1.072	955
	Valoración	Número de Valoraciones Realizadas	21.882	21.882	21.643	19.916	-239	1.727
		Dependencia: Días Recepción a Super	25	25,0	32,9	23,7	8	9
		Discapacidad: Días Recepción a Super	25	25,0	38,8	35,8	14	3
FM + Gerozerlan	Ingresos de Explotación	45.744.863	45.744.863	46.651.227	48.475.017	906.364	-1.823.789	
	Resultados actividad	2.265.054	2.265.054	2.119.586	2.127.581	-145.468	-7.996	
	% Resultado sobre ingresos	4,95%	4,95%	4,54%	4,39%	-0,41%	0,15%	
	EBITDA	4.653.961	4.653.961	4.476.400	4.634.192	-177.561	-157.793	
	% EBITDA sobre ingresos	10,17%	10,17%	9,60%	9,56%	-0,58%	0,04%	
	Servicio de la deuda	-4.442.732	-4.442.732	-4.442.732	-4.873.911			
	EBITDA / Servicio de la deuda	4,75%	4,75%	0,76%	-4,92%			
	Independencia Financiera	48,81%	48,81%	47,88%	43,28%	-0,93%	4,60%	
	Fondo de Maniobra	-3.714.400	-	-4.128.843	-3.909.384	-	-	
	Resultados actividad Petra Lekuona	Ingresos de Explotación	3.544.527	3.544.527	3.629.768	3.513.228	85.241	116.540
Resultados Empresariales		198.058	198.058	333.576	293.188	135.518	40.388	
% sobre ingresos		5,59%	5,59%	9,19%	8,35%	3,60%	0,84%	
EBITDA		337.999	337.999	466.254	426.373	128.255	39.882	
% EBITDA sobre ingresos		9,54%	9,54%	12,85%	12,14%	3,31%	0,71%	
Servicio de la deuda		-139.303	-139.303	-139.303				
EBITDA / Servicio de la deuda		142,64%	142,64%	234,71%				
Independencia Financiera		84,14%	84,14%	84,56%	82,00%	0,42%	2,56%	
Fondo de Maniobra		511.806	-	813.220	482.826	-	-	
Instituto	Ingresos de actividad	982.140	982.140	971.140	835.195	-11.000	135.945	
	EBITDA actividad	-122.021	-122.021	-218.587	-338.585	-96.566	119.998	
	% EBITDA sobre ingresos de actividad	-12,42%	-12,42%	-22,51%	-40,54%	-10,08%	18%	
	Ingresos Adjudicados	0	968.275	968.275	-			
	% ingresos de actividad s/adjudicado		101%	100%	-			

FUNDACION JOSE MATIA CALVO Y SOCIEDADES DEPENDIENTES			
CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS AUDITADAS CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO TERMINADO EL 31 DE DICIEMBRE DE EJERCICIO			
(Euros)			
	2018	2017	2016
A) OPERACIONES CONTINUADAS			
1. Importe neto de la cifra de negocios.	45.051.585	47.063.197	46.430.839
b) Prestaciones de servicios.	45.051.585	47.063.197	46.430.839
4. Aprovisionamientos.	-7.412.802	-7.683.072	-7.852.372
a) Consumo de mercaderías.	-864.922	-845.035	-674.682
b) Consumo de materias primas y otras materias consumibles.	-2.135.627	-2.211.663	-2.159.738
c) Trabajos realizados por otras empresas.	-4.412.254	-4.626.374	-5.017.952
5. Otros ingresos de explotación.	1.303.984	1.176.245	1.007.650
a) Ingresos accesorios y otros de gestión corriente.	1.190.906	1.110.444	881.025
b) Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio.	113.079	65.801	126.625
6. Gastos de personal.	-31.145.039	-32.379.097	-30.867.466
a) Sueldos, salarios y asimilados.	-23.159.148	-24.209.628	-23.265.220
b) Cargas sociales.	-7.985.891	-8.169.469	-7.602.246
7. Otros gastos de explotación.	-3.390.743	-3.596.937	-3.350.678
a) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales.	-4.922	-4.922	-3.000
b) Otros gastos de gestión corriente.	-3.390.743	-3.592.015	-3.347.678
8. Amortización del inmovilizado.	-2.008.518	-2.051.856	-2.087.041
9. Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras.	214.005	212.075	212.101
11. Deterioro y resultado por enajenaciones del inmovilizado.	-13.105	-590	0
a) Deterioros y pérdidas.	-13.105	-590	0
b) Resultados por enajenaciones y otras.	-13.105	-590	0
12. Otros resultados.	64.574	-14.717	-7.512
A.1) RESULTADO DE EXPLOTACIÓN (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13+14)	2.663.941	2.725.249	3.485.520
15. Ingresos financieros.	12.577	12.486	11.971
b) De valores negociables y otros instrumentos financieros.	12.577	12.486	11.971
16. Gastos financieros.	-544.756	-637.282	-708.847
A.2) RESULTADO FINANCIERO (15+16+17+18+19)	-532.180	-624.796	-696.877
A.3) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)	2.131.762	2.100.452	2.788.644
24. Impuestos sobre beneficios.	-12.176	0	0
A.4) RESULTADO DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS (A.3+23)	2.119.586	2.100.452	2.788.644

2018an 2.119.586 €-ko emaitza ekonomikoa izan da, aurreko urteko zenbatekoaren antzerakoa. Aurtengo otsailetik aurrera Txara egoitza zentroa kudeatzeari utzi diogu eta, beraz, gastuak nahiz sarrerak gutxitu egin dira.

SARRERAK

Egoitzen alorrean, % 100eko okupazio maila egon da plaza publikoetan eta % 91koa plaza pribatuetan; batez beste % 98ko okupazio maila egon da, beraz (% 97,96koa izan zen 2017an). Maiatzetik aurrera, Aldundiarekin hitzartutako plazen tarifen hazkundea ezartzen hasi gara.

Eguneko zentroei dagokienez, % 91,49ko okupazio maila izan dute batez beste. Urte hasieratik hona zentro guztietan egin du behera okupazio mailak, eta gaur egun ere jarraitzen du joera horrek. Maiatzetik aurrera 3 ekintza hasi da jorratzen Matia Orienta, jaitsiera horren harira: egoitzetatik eguneko zentroetara bideratzea eskaria; baliabide horren baliagarritasunari buruzko mezua aldatzea; eguneko zentroak malgutzen saiatzea.

Plaza pribatuaren batez besteko prezioa ere datu garrantzitsua da: urte amaieran 100,64 euroko prezioa zeukan, batez beste, egonaldi bakoitzak.

Osasunaren alorrean, Eusko Jaurlaritzak 12.8880,378 euro eman ditu 2018an hitzarmenaren esparruan; hau da, 2017an baino % 1,5 gehiago.

Ospitaleko okupazio maila % 91,59koa izan da. Alta hartu arteko batez besteko egonaldia 25,13 egunekoa da, aurreko urtean baino laburragoa. Okupazio maila altu horren beste aldean, **errehabilitazioan** jarduera txikiagoa izan da, itundutako zenbatekoa ez gainditzeko. Halere, itundutako zenbatekoa baino 145.000 euro gehiagoko jarduera egin dugu.

Nabarmentzekoa da urtarrilean ospitaleko solairuak berrantolatu egin ditugula, erabiltzaileen ongizate handiagoaren bila. Gaur egun, zaintza aringarriak behar dituzten pazienteak hirugarren solairuan daude eta solairuaren gainerako erdia eriondoko pazienteek erabiltzen dute. Psikogeriatricoak, berriz, bigarren solairura lekualdatu dira. Berrantolaketa gauzatzeko inbertsioa 2017. urtean egin zen.

Kanpoko kontsultei dagokienez, gero eta jarduera handiagoa egiten du. Hain zuzen ere, aurreko urtean baino 955 kontsulta gehiago egin ditugu 2018an.

Laguntzaile Pertsonalen Zerbitzuak aurreko urtean baino jardun txikiagoa izan du; 3.428 ordu gutxiago, hain zuzen. Fakturazioa txikiagoa izan arren, langileen kostuak ere behera egin du, datu horrek jardunarekiko erlazio zuzena baitauka.

GASTUAK

Honako gai hauek azpimarratu nahi ditugu gastuen atalean.

- **Langile gastuak**

Emitza kontuetako sarreraren % 66 hartzen du partida horrek.

Hona ekitaldiko gai garrantzitsuenak, labur:

- **Txara:** Matia Fundazioak urtarrilean baizik ez du kudeatu Txara zentroa.
- **Soldata hazkundera:** hitzarmena sinatzeko zain, KPlaren pareko hazkundera aurreikusi du Matia Fundazioak.
- **Gainratioa:** laguntzaileen gainratioa dugu Aldundiaren zerbitzu zorroarekiko, bai prestakuntzan, bai pertsonarengan ardaztutako arreta ereduan, bai eredu modularrean.

Aurrekontuarekiko gainratioa izan da erizainen kopuruan ere, zaila gertatzen baita erizainen kontratazioa kudeatzea, eta gora egin du, halaber, farmaziako langileen ratioak, farmazia zerbitzua hobetzeko asmoz.

- **Absentismoa:** Matia Fundazioan % 8,2ko absentismoa egon da, eta % 12,0koa Gerozerlanen. Absentismo horren barruan sartu ditugu gaixotasun arruntagatiko absentiak nahiz ordaindutako baimenak (hitzarmenari lotutakoak).

MATIA FUNDAZIOA	BENETAKOA
Arretako laguntzaileak	% 10,7
Erizainak	% 7,4
Guztizko orokorra	% 8,2
GEROZERLAN	BENETAKOA
Arretako laguntzaileak	% 13,7
Erizainak	% 10,8
Guztizko orokorra	% 12,0

- **Konponketa eta kontserbazio gastuak**

Birmingham, Fraisoro, Argixao eta Otezuri zentroetako konponketa lanak nabarmenduko ditugu:

- *Birmingham*: markesina klimatizatua ezarri da lehen solairuan eta komunak konpondu dira.
- *Iza*: markesina ezarri da lehen solairuko bigarren moduluan.
- *Fraisoro*: estaldurako eta lehen solairuko itoginak konpondu dira.
- *Argixao*: aseguruak ordaindu ditu, guztiz, gela batean izandako suteak eragindako kalteak.
- *Lamorous*: zenbait jarduketa egin dira pinturen eta babesen akaberetan.
- *Otezuri*: maiatzean galdara aldatu genuen.
- *Birminghameko terraza*: lorategi botanikoa egin da Birmingham egoitzako terrazan, iaz jasotako 200.000 euroko dohaintza anonimoari esker. Lan horren kostua aintzat hartuta, inbertsioen partidan kokatu dugu, emaitza kontuan kokatu beharrean. Gaur egun lanean ari dira eta datorren hiruhilekoan bukatzea aurreikusten dugu.

- **Zergak**

Zergen atalean, gainkarga izan dugu azken lau urteotako OHZn eta EJZn, Matia Fundazioaren Birmingham eraikinaren katastro balioa berrikusi eta handitu egin dutelako.

- **Farmaziako eta laborategiko gastuak.**

Alde batetik, laborategiko gastua handitu egin da, gotzaingoak eskatutako azterketak egin izanaren ondorioz; beste aldetik, geure gain hartu dugu farmaziako roboterako kontsumigarrien kostua.

JASOTAKO LAGUNTZAK

Zentroetan ikerketa proiektuak egiteko laguntzak jaso ditu Fundazioak. Kasu guztietan lehiako finantzaketa izan da, eta egoki justifikatu behar izan dugu bukaeran, jaso ahal izateko. Gauzatutako proiektuek Fundazioaren egoitza zentroetarako nahiz osasun arearako balio izan dute.

Beste alde batetik, matiazaleen dohaintzak ere jaso ditugu: kuotak edo aldian aldiko diru-kopuruak ematen dizkiote Fundazioari, adinekoen eta desgaitasuna dutenen bizi kalitatea hobetzeko proiektuak bultzatzeko.

SUBVENCIONES RECIBIDAS								
ORGANISMO	NOMBRE PROYECTO	EJERCICIO	IMPORTE CONCEDIDO	TRASPASO A RTADOS 2018	TRASPASO A RTADOS 2017	TRASPASO A RTADOS 2016	TRASPASO A RTADOS 2015	TRASPASO A RTADOS 2014
GOBIERNO VASCO	E-BIZI	2014	146.590				66.298	80.292
	GIRO	2014	9.103					9.103
	SIMACP	2014	17.809	-2.353				17.809
	GIRO	2015	30.683				30.683	
	SIMACP	2015	46.384	-904		84	46.300	
	THINKING PLAY	2015	16.200			15	16.200	
	BIZI	2016	16.575			16.575		
	GIRO	2016	39.898		7.980	31.918		
	PROTOTIPO	2016	3.044	-3.044		3.044		
	THINKING PLAY	2016	44.491			44.476		
DIPUTACION NAZARET ZENTROA	EK-NEOU	2017	38.985	19.021	19.964			
	HAUSKOR	2018	102.477	39.531				
MATIAZALEAK	ASPD	2018	5.000	5.000				
	BEGIRADAK	2018	10.306	10.306				
TOTAL			572.246	113.079	65.801	126.625	159.481	107.204

INFORMAZIO FISKALA

Matia Fundazioa kontabilitate alorrean Gerozerlan SL eta Matia Servicios Sociales SLU sozietateekin bateratzen bada ere, zerga ondorioetarako ez dago bateratzerik, batzuk eta besteak karga tasa desberdinarekin zergapetuta baitaude. Matia Fundazioari araubide berezia ezartzen zaio, irabazi asmorik gabeko erakundea delako, eta Gerozerlan eta Matia Servicios Sociales sozietateek, berriz, araubide orokorraren pean kotizatzen dute.

Sozietateen gaineko Zerga: zergapetutako eta salbuetsitako errentak bereizteko aukera ematen du mezenasgoari buruzko 3/2004 foru arauak. Matia Fundazioari dagokionez, catering zerbitzua, talde barruko jarduerak eta balorazio zerbitzuak izan ezik, gainerako jarduera guztiak salbuetsita daude (hala sarreretan nola gastuan). Zergapetutako errentei dagokienez, % 10eko karga tasa dute, % 24koa izan beharrean. Sozietateen gaineko Zerga aurkezten duenean txosten ekonomikoa ere aurkeztu behar du harekin batera. Zergapetutako errenten emaitza negatiboa izan da eta, beraz, ez dute ordaintzeko zergarik sortzen.

Gerozerlan eta Matia Servicios Sociales sozietateek, ordea, araubide orokorraren arabera ordaintzen dituzte zergak. Lehen sozietateak ez du aurten arte zerga hori ordaindu behar izan, aurreko urteetako zerga oinarri negatiboak zituelako eta aurten arte ez zegoelako halakoak ezartzeko mugarik. Matia Servicios Sociales sozietateari dagokionez, emaitza negatiboak dituenek, ez du zergarik sortzen.

IMPUESTO DE SOCIEDADES	2018	2017	2016
Fundación Matia	0	0	0
Gerozerlan	12.176	0	0
Matia Servicios Sociales	0	0	0
	12.176	0	0

HORNITZAILEAK

Gure egoitza zentroen, eguneko zentroen eta ospitalearen eguneroko funtzionamendu egokia bermatzeko produktu eta zerbitzuen hornidura egonkorra ziurtatu behar du, ezinbestean, Matia Fundazioak. Honako hornidura hauek bermatu behar ditu, hain zuzen:

- Eguneroko dietak (gosariak, bazkariak, askariak, afariak).
- Erabiltzaileen arroparen eta oheko arroparen (arropa zuriaren) garbiketa.
- Zentroaren garbiketa integrala: logelak, eremu erkideak, jangelak, kristalak eta zentroak oro har, txukun eta sakon.
- Erabiltzaileak eguneko zentrora eramateko garraioa.
- Hornidurak: gasa, argia, elektrizitatea, telefonoa, teknologia.
- Orotariko materialak: bulegoko materiala, osasun materiala, oheko arropa, garbiketarako materialak eta arropa...
- Mantentze lanak.
- Zentroetako altzariak.

43

Hornitzaileak aukeratzen ditugunean, funtsezko alderdi jakin batzuk hartzen ditugu beti aintzat:

- Gaitasun teknikoa.
- Saldu osteko zerbitzua.
- Prozeduren moldagarritasuna.
- Prezioa eta ordaintzeko baldintzak.
- Lege baldintzak betetzen direla.
- Aurretiko esperientzia.
- Eskariei eta gertakariei erantzuteko gaitasuna.
- Produktuaren/zerbitzuaren kalitatea.
- Emateko epeak eta zehaztutako akordioak betetzen direla.

Ahal dugun guztietan bertako hornitzaileak (0 km-ko hornitzaileak) lehenesten ditugu, horrela gure komunitatearentzako aberastasuna sortzen dugulako, epeak eta produktuen freskotasuna bermatzen ditugulako, ingurumena gutxiago kutsatzen dugulako (bidaiei luzera laburtu egiten delako) eta hornitzaileak gure premiak ezagutzen dituela ziurtatzen dugulako.

204-1. Tokiko hornitzaileekin egiten dugun gastuaren ehunekoa.

AMBITO GEOGRAFICO	2018			2017			2016		
	Importe	Número	%	Importe	Número	%	Importe	Número	%
LOCAL (Guipuzcoa)	7.926.374	300	53%	8.752.640	328	56%	8.217.037	306	55%
RESTO COMUNIDAD (Alava y Vizcaya)	743.667	46	8%	850.188	54	9%	1.156.268	48	9%
NACIONAL (Resto de España)	2.001.134	219	39%	2.051.379	202	35%	1.846.219	201	36%
TOTAL	10.671.176	565	100%	11.654.206	584	100%	11.219.525	555	100%

Gure hornitzaileen % 60 inguru gure zentroetatik 150 km-ko erradioan dago. Kontuan izan behar da gure hornitzaileen artean bi multzo berezi behar direla: alde batetik eguneroko produktu eta zerbitzuez hornitzen gaituztenak (eta, beraz, erantzuna, hurbiltasuna, ezagutza eta abar funtsezkoak dira) eta, beste alde batetik, aldian aldiko hornitzaileak, askotan

azpiegiturari eta altzariei lotutako kontuetarako erabiltzen ditugunak. Halakoetan, hurbiltasuna baino garrantzitsuagoak izaten dira erosten ditugun ondasunen kalitatea eta iraunkortasuna.

Urtean behin auditoretzak egiten ditugu, gure zerbitzuen eta prozesuen kalitatea egiaztatzeko. 2018ko ekitaldira arte ez dugu adierazlerik izan egindako auditorien kopuruaren berri emango digunik: auditoretzaren kontrako ebazpenen jarraipena egitera mugatu gara.

Hornitzaileekiko gertakarien ebaluazioaren eta jarraipenaren ondorioz, hauxe esan dezakegu: kalitatean, prezioan, zerbitzuan, hurbiltasunean eta eskuragarritasunean jaso duten balorazio onagatik mantentzen ditugu zerbitzu hornitzaileak. Produktu hornitzaileen ebaluazioa ere egokia da kasu guztietan. Hain zuzen, kalitateko barneko kudeaketa sisteman ikus daitezke gertakarien erregistroak eta erosketen balorazioak. 2018ko ekitaldian ez dugu inolako gertakaririk edo gorabeherarik izan eta nabarmentzekoa da, berriz, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak zoriondu egin gaituela arriskuak eta kontrol puntu kritikoak aztertzekeo sistemagatik eta sukalde nagusiko jarraipenagatik.

AUDITORIAS DE COMPRAS REALIZADAS		
Empresa	Concepto	Día
Itsas Natura	control APPCC	23/02/2018
Itsas Natura - Interna	Alerta Sanitaria	08/03/2018
DNV	Auditoria Calidad	06/06/18-26/06/18
Sanidad - Itsas Natura - Externa	Alerta Sanitaria	18/09/2018
Control interno	Seguridad Alimentaria	26/09/2018
Sanidad-Piscina	Auditoria sanidad	18/09/2019
Ireber - Agem	Auditoria Económica	14/12/2018

BEZEROEI LOTUTAKO GAIAK


Matia Fundazioan, 2018an:



45


MATIA
Zure Etxea

24.811 LAGUNEN* ONGIZATEA HOBETU DUGU



ACUMEN* METODOLOGIA erabili dugu geure helburuan lortutako inpaktua neurtzeko, zerbitzuek pertsonengan duten azken inpaktua identifikatzeko aukera ematen baitigu. Erabiltzeko metodologia erraza da, eta, inpaktu adierazle neurgarriak eskaintzeaz gain, erakundearen jarduerari buruzko gogoeta sakona egiteko aukera ere ematen digu.

ZAINTZEN JARRAIPENA



ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA (EAZ)

Pazienteen, erabiltzaileen eta euren familien iritzia, eta baita euren kexak, iradokizunak eta esker onak ere, sustatu, bildu eta aztertzea da haren eginkizuna, kontuan har daitezen eta erakundea hobetzeko aukera bilaka daitezen.

Funtzioak:

- Erabiltzaileen eskubideak betetzen direla zaintzen du.
- Erabiltzaileek edo euren familiek aurkezten dituzten erreklamazio, iradokizun eta gertakari guztiak bultzatu, artatu eta izapidetzen ditu.
- Prebentziorako ekintzak, ekintza zuzentzaileak eta hobetzeko ekintzak ezartzen laguntzen du.
- Neurri horien eraginkortasunaren jarraipena egiten du.
- Inplikaturik dauden alderdi guztiak informatu eta lotutako prozesuak egiten ditu.
- Urtean behin gogobetetasun ikerketa egin eta emaitzak jakinarazten ditu.
- Datu pertsonalei eta historia klinikoari lotutako eskubideei buruzko gorabeherak biltzen ditu.


Kexa edo erreklamazioen bat jarri, gertakariaren baten berri eman edo esker ona adierazteko bideak:

- Zentroan aurrez aurre, zure ekarpena profesional bati adieraziz.
- Zure ekarpena zentroko iradokizunen postontzian utziz.
- Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzura mezu elektronikoa igorriz.
- Aurrez aurre, EAZrekin hitzordua hitzartuta.


139 ekarpen jaso dira guztira: erreklamazioak % 29 dira; kexak % 24; gertakariak % 1; iradokizunak % 5 eta esker onak % 40.

Ekarpenak 2018an


139 ekarpen jaso dira guztira: erreklamazioak % 29 dira; kexak % 24; gertakariak % 1; iradokizunak % 5 eta esker onak % 40.




2018an aurreko urtean pareko ekarpen kopurua jaso da Erabiltzaile eta Pazienteentzako Arreta Zerbitzuan (4 gehiago, hain zuzen). Aurreko urtean baino % 15 esker on gehiago dago, eta kexuak eta erreklamazioak, berriz, % 15 gutxiago dira.



Irailan (% 12, 16 guztira) eta ekainean (% 11,5, 15 guztira) jaso dira ekarpen gehien.




Ekarpen gehienak familiek (% 57,6, aurreko urtean baino 21 gehiago), erabiltzaileek (% 20, aurreko urtean baino 12 gutxiago) eta Osasun Sailak (% 15,3, 4 gutxiago) egin dituzte.



Arrazoi ohikoenak: zerbitzuaren eta arretaren kalitatea (% 40,7), errehabilitazioko itxaron zerrenda (% 13), tratua (% 10,7) eta zerbitzuaren irizpideak (% 5,3).


Aportaciones x Motivo y Tipo



50

Ospitaleko arreta prozesuak ekarpenen % 34,6 bildu du, errehabilitazio anbulatorioak % 29,2 eta egoitzako arretak % 27,6.

Aportaciones x Proceso y Tipo



Errehabilitazio zerbitzuak 46 kexa eta erreklamazio jaso zituen 2017an, eta 28 2018an; ospitaleko arreta prozesuak 15 esker on 2017an eta 22 2018an eta 8 kexa eta erreklamazio 2017an eta 21 2018an; egoitzako arretak 10 esker on jaso zituen 2017an eta 19 2018an, eta kexuak eta erreklamazioak, berriz, gutxitu egin dira: 24tik 16ra, hain zuzen.

BEZEROAREN GOGO BETETASUNA


Matia Fundazioan inkestak eta foku taldeak erabiltzen ditugu gure zerbitzuak erabiltzen dituzten edo gure zentroetan bizi diren erabiltzaileen gogobetetasuna neurtzeko.

Ondoren, gogobetetasun globalari buruzko datuak erakutsiko ditugu, jardueraz jarduera.


Eguneko zentroa

51

Satisfacción Personas Usuarias CD en %




Satisfacción Familias CD en %




Dibertsitate funtzionala

Satisfacción Personas Usuaris Iza en %




52

Satisfacción Familias Discapacidad en %




Egoitzak

Satisfacción Personas Usuaris Residencial en %




Satisfacción Familias Bermingham Residencial en %



53

Ospitalea



Errehabilitazio zentroak

	Muy Buena	Buena	Regular	Mala	Muy Mala
Atención admisión	64%	34%	1%	0%	1%
T. espera en 1ª cita con el médico	Largo 24%	Ni largo ni corto 43%	Corto 34%		
T. espera hasta inicio tto.	Largo 28%	Ni largo ni corto 32%	Corto 40%		
Clasificación del caso	Muy Buena 24%	Buena 57%	Regular 16%	Mala 3%	Muy Mala 1%
Competencia y conoc. del médico	Muy Buena 48%	Buena 49%	Regular 3%	Mala 0%	Muy Mala 0%
Amabilidad y trato del médico	Muy Buena 54%	Buena 43%	Regular 3%	Mala 0%	Muy Mala 0%
Competencia y conoc. del/la fisio	Muy Buena 78%	Buena 21%	Regular 0%	Mala 0%	Muy Mala 0%
Amabilidad y trato del/a fisio	Muy Buena 85%	Buena 15%	Regular 0%	Mala 0%	Muy Mala 0%
Instalaciones	Muy Buena 18%	Buena 67%	Regular 14%	Mala 0%	Muy Mala 0%
Dotación técnica	Muy Buena 21%	Buena 66%	Regular 13%	Mala 0%	Muy Mala 0%
Limpieza de las instalaciones	Muy Buena 45%	Buena 52%	Regular 2%	Mala 0%	Muy Mala 0%
Organización y funcionamiento	Muy Buena 39%	Buena 59%	Regular 2%	Mala 0%	Muy Mala 0%
Horario adaptado a necesidades	Si 97%	No 3%			
Respeto a la intimidad	Siempre 95%	Casi Siempre 4%	A Veces 0%	Nunca 0%	
Información sobre la patología	Muy Buena 32%	Buena 60%	Regular 8%	Mala 0%	Muy Mala 0%
Valoración tratamiento recibido	Muy Bueno 51%	Bueno 45%	Regular 3%	Malo 0%	Muy Malo 0%
Mejora patología	Mucho 49%	Ni mucho ni poco 38%	Poco 11%	Nada 1%	
Respeto a la preferencia lingüística	Siempre 95%	Casi Siempre 5%	A Veces 0%	Nunca 0%	
Indicaciones para cuidarse en casa	Sí 90%	No 10%			
Recomienda el servicio	Sí 100%	No 0%			
Valoración Global	8,83				

BOLUNTARIOTZA

Boluntariotza oso faktore garrantzitsua da gure zentroetan bizi diren pertsonen ongizatea sustatzeko lanean.

Gurekin elkarlanean ari diren elkarteetatik eta inguruko ikastetxeetatik etortzen dira gure boluntario guztiak.

Boluntarioaren eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen agiri bat sinatu behar dute boluntarioek gurera etortzen direnean.

2018ko ekitaldiko daturik garrantzitsuenak erakutsiko dizkizugu ondoren.

Laguntzen diguten pertsonen eta erakundeen kopurua, eta gurean ematen dituzten orduen kopurua

MATIA
Zaleak



3.460
BOLUNTARIO


164 ERAKUNDE LAGUNTZAILE



Boluntarioen bilakaera



Emandako orduen bilakaera



2014az geroztik «MatiaZaleak» ekimena ere jarri du abian Matia Fundazioak: Matia Fundazioaren asmoarekin bat egiten dugun pertsona guztiak biltzen ditu. Alegia: «pertsonei zahartze prozesuan zehar laguntzea, haien ongizatea hobetzeko eta haien autonomia eta duintasuna sustatuko dituzten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortzeko».

Gipuzkoako gizartearekiko konpromisoa sustatu nahi dugu Matiazaleak ekimenaren bidez, adinekoek eta desgaitasunen bat duten pertsonak bete gabe dituzten beharrei erantzuteko. Ildo berean, Matia Fundazioaren laguntza sareko elkarte eta erakundeek eta Gipuzkoako gizarte osoaren beharrak ere bete nahi ditugu. Eta, orobat, gure asmoan laguntzen diguten boluntarioen eta laguntzaileen lana aintzatetsi nahi dugu.

MatiaZalea izateak haxe dakar:

- Pertsonen ongizatea eta bizitza hobetzeko lan egitea, zahartzea eta desgaitasuna agerian jarri eta horren berri emanez.
- Zahartzearen eta desgaitasunaren alorreko jardueretan parte hartzea eta horien inguruko informazioa jasotzea. Gure lurraldearen hobekuntza sozialean laguntzea, gure gizarte errealitatearen funtsezko esparru batean arituz.
- Zahartzearen eta dibertsitate funtzionalaren alorrean gurekin elkarlanean aritzen diren erakundeekin sarean sartzeko bidea erraztu nahi dugu MatiaZaleak ekimenaren bidez.

Ondoren, matiazaleen ekarpenei esker abian jarritako ekimenak eta ekimen horren sarreraren xehakapena azalduko ditugu.

56

MATIA
Zaleak




LORTUTAKO EKIMENAK



ABIAN DAUDEN EKIMENAK

Ingresos Matia Zaleak
Total Donaciones
32.586€



ARRETA HOBETZEKO AZPIEGITURA BERRIAK

PROIEKTU BERRIAK

Matia Fundazioak bi proiektu berritzaile handi ditu jomugan 2019an: Usurbilen zentro gerontologiko berri bat eta Lugaritzen adinekoentzako etxebizitza zentro bat eraikitzea.

Usurbilen berrikuntza zentroa eta zaintzadun ostatua eraikitzeko proiektua

Arrazoi ugari daude Matia Fundazioak Gipuzkoako arreta eredua berritzeko prozesu bati heltzeko, betiere Foru Aldundiaren eta gainerako herri erakundeen politika gerontologikoekin bat. Hona hemen batzuk:

- Arrazoi soziodemografikoak: datozen urteetan pertsona asko zahartuko dira osasun, gizarte eta ekonomia baldintza hobeean. Munduan lurralderik zaharrenetako bat izango da Gipuzkoa.
 - 65 urteko edo gehiagoko Gipuzkoako herritarren kopuruak % 39,6 egin du gora azken 20 urteetan. Munduko biztanleria osoa aintzat hartuta, berriz, % 6,3 egin du gora. 1998 eta 2017 bitartean, 65 urtetik gorakoak biztanleria osoaren % 16,5 izatetik % 21,6 izatera igaro dira.
 - 80 urteko eta gehiagoko herritarren kopurua ia bikoiztu egin da: 25.349 ziren 1998an eta 50.254 dira 2017an.
- Halatan, hazkunde esponenziala izango du bakarrik bizi diren eta bizitzeko formula seguruagoak eta «babesgarriagoak» nahiago izango dituzten adinekoen kopuruak. Eta, betiere, euren bizimodua normalizatzearen ildotik: alegia, beraien independentzia eta intimitatea bermatuko duen «etxeko eredua» mantenduz.
- Gipuzkoan 29.120 lagun egongo dira letik IIIra bitarteko mendekotasun mailekin, Autonomia Pertsonala eta Mendekotasuna duten Pertsonen Arreta Sustatzeko 39/2006 Legearen zehazten dituen mendekotasun egoerak aintzat hartuta.
- Jendeak behin eta berriro esaten du zahartzaroan laguntza behar duenean zer aukera nahiago duen: ETXEAN BIZITZEA EDO ETXEAN BEZALA BIZITZEA.
- Ohiko eredu instituzionalarekiko eta etxez etxeko arretarekiko arbuioa orokorra da, ez dietelako nahikoa erantzuten mendekotasun egoeran dagoen pertsonen premiei.
- Herri erakundeak ohartu dira baliabide gehiago bideratu behar direla mendekotasun egoeran dauden pertsonen premietara. Foru Aldundiak berrikitan kaleratu du 2018-2021 aldirako Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa. Haren arabera, egoitzetako 441 plaza falta izango dira 2021ean, horietako 191 Buruntzaldean. Diario Vasco egunkariak azaroaren 7an argitaratutako prentsa-oharrak jasotzen du aurreikuspen horien zati bat, eta Usurbilgo proiektua aipatzen du plangintza horren erreferentzia gisa.
- Ziur gaude ekosistema eraikitzea laguntza handia izango dela mendekotasunaren ibilbideari eta haren ondoriozko beharrezaneiei aurre egiteko. Ziur gaude, halaber, datozen urteetan zahartzaroan sartuko diren belaunaldiak prestakuntza handiagoa eta hobe izango dutela eta, ondorioz, kalitate handiagoa eta beraien beharrezan eta lehentasunetara egokitutako zerbitzuak eskatuko dituztela.

Duela hamarkada batzuetatik hona, mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta eredua goitik behera aldatzeko bidean ari dira zenbait herrialde, hala nola Suedia, Danimarka, Holanda eta Estatu Batuak. Geroago, Erresuma Batua, Frantzia eta Alemania ere gehitu zaizkio mugimendu berritzaile horri, honako printzipio hauetan oinarrituta:

- Gizarte eta osasun zerbitzuen hornikuntza integratua.
- Pertsonen euren ohiko ingurunean irautea.
- Norberaren etxebizitzaren ordezkio aukerak eskaintzen direnean, «etxean bezala bizitzeko» aukera izatea.
- Pertsonengan eta beraien lehentasunetan ardaztutako arreta eredua.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzea, beraien aukera gaitasuna indartzea, iraganeko inguruneen jarraitutasuna bultzatzea eta beraien duintasuna eta intimitatea zaintzea.

Matia Fundazioaren Institutu Gerontologikoak ikerketa eta berrikuntza gerontologikoko Europako proiektuetan izandako partaidetzaren bidez eskuratu dituen ezagutzak eta esperientziak balio erantsia dakarkite erakundearen jardunari, eta agerian jartzen dute arreta ereduen paradigman izandako aldaketaren garrantzia, «housing» kontzeptuaren inguruan eta zaintzak emateko modalitateetan. Saumon eta TTS europar sareetan izan duen partaidetzari esker eta azken urteetan ETXEAN ONDO eta ETXEAN BIZI proiektuak jorratzen egindako lanari esker, Usurbil proiektua ezartzeko balio handiko ezagutzak eta esperientzia eskuratu ditu Institutuak. Aldaketa prozesua esperimendatzen urteetako lana egin ondoren, arreta eredu mota hori babestu du Europako iparraldeko eta erdialdeko estatu gehienetako legeriak. Azken buruan, lortutako jardunbide egokiak babestu ditu legeak. Espainiako Estatuan ere hasi dira ildo kontzeptual horren inguruko legeria sortzen.

Hori guztia dela eta, gure egungo sistemarekiko koherentziatik eta iraunkortasunetik abiatuta, aldaketa horri heltzeko bideari buruz hausnartzen hasi dira profesionalak, elkarteak eta baita erabaki politikoei lotutako esparruak ere. Gipuzkoa aitzindaria da prozesu berritzaile horretan, jakinik erronka konplexua, arreta gerontologikoaren kultura aldaketa eta, bereziki, sistema instituzionalaren aldaketa dituela aurrean. Pasaia izeneko ekosisteman eta, aurretiaz, Usurbil proiektuan oinarritzen den ADINBERRI ekimena konpromiso horren adierazgarri bikaina da. Hain zuzen, Matia Fundazioak sustatzen duen Usurbil proiektuak Gizarte Politiketako Sailaren babesa dauka, mendekotasun edo ahultasun egoeran dauden pertsonak artatzeko eredu alternatiboa eta berritzailea garatzeko ebidentzia zientifikoak lortzeko eta, azken buruan, arreta ibilbide osoan zaintzen jarraitutasuna bermatuko duen ordezkio arreta eredua ziurtatzeko. Eta, betiere, beharrezkoak hasiera-hasieratik aurre egingo dien ikuspegi ekosistemiko batetik abiatuta, ohiko etxebizitzatik abiatuta, egoiliarren ohiko bizimodua ahalik eta ongien erreproduzitzeko duten bizitoki txikiz osatutako zentro gerontologiko baterako lekualdaketa egokia bermatzeko.

Esparru kontzeptuala

Honako hauek dira Usurbil proiektua egituratzeko printzipioak:

- **Pertsonak, beraien ongizatea eta arretaren kalitatea dira** proiektua egituratzeko ardatz nagusiak. Ondorioz, dimentsio etikoak eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen eskubideak gauzatzeko bermeak aginduko dute zentroaren jardun osoa.
- **Diziplina arteko zeharkako lotura**, orotariko diziplinetatik eta sistemetatik abiatuta (osasun eta gizarte arloetakoetatik batez ere), ezagutzaren arlo horretako ekimen sarea elkarren artean lotu eta garatzeko.
- **Ezagutzaren kudeaketa**: ikuspegi psikosozialetik eta soziosanitariotik lantzea mendekotasun profil bakoitzaren berezitasunak.
- **Arretako eta berrikuntzako jardunbide egokiak sortzea eta balioztatzea** jarduera esparru bakoitzean, ezagutza zorrotza eta erreferentziazkoa transferitzeko.
- **Sareko lan eredua jorratzea**, honako hauek lortzeko:
 - Pertsonen lehentasunetan ardaztutako arreta eredu baterako bidea diseinatzea eta zehaztutako mugarriak betetzea.
 - Gipuzkoan eta Euskadin ezagutzaren arlo horretan lanean ari diren zentroak, instituzioak eta elkarteak elkarren artean lotzea, koordinatzea eta suspertzea.

Usurbilen berrikuntza zentroa eta zaintzadun ostatua eraikitzeke proiektuaren ezaugarri nagusiak.

Adierazi dugun bezala, ezaugarri jakin batzuek dakarte proiektuaren izaera berritzailea. Hona hemen garrantzitsuenak:

- **Zaintzadun ostatua eskaintzen duen zentro gerontologikoa**, lehen aldiz «etxebizitzaren» esparru kontzeptuarekin oinarrituta eraikiko dena, korridoreen inguruan kokatutako gelak dituen instituzio tradizionalaren ereduan oinarritu beharrean.
 - Arkitektura diseinuari esker, bateragarriak izango dira egoitza eredu eta «etxean bezala bizitzea» bermatuko duten espazioak. Izan ere, «etxebizitza» kontzeptua erabiliko da gelaren kontzeptuaren ordez, egoiliarrentzako benetako eremu pribatua bermatzeko. Halatan, familiekiko, adiskideekiko edo boluntarioekiko komunikazioak eta laguntzak benetako «pribatutasuna» lortuko du, instituzio tradizionalarekin ez bezala (ezinezkoa baitu halakorik eskaintzea).
 - 18 lagunentzako **bizikidetza unitateen kontzeptuan oinarrituta** diseinatuko da eredu berria. Unitate horiek 9 lagunentzako 2 unitatetan banatu ahal izango

- dira, jakinik etorkizun hurbilean profil eta ratio profesionalak berrikusi egingo direla, egitura horretara hobeto egokitzeko.
- **Eguneko zentro** bat ere eraikiko da, zaintzaileekin eta zentroaren jarduerekin koordinatuta, etxebizitzetako esku-hartzeen jarraitutasuna bermatzeko. **Baliabide irekia, malgua eta trinkoa** izango da.
- Ekipamendu horietan **pertsonen eguneroko bizitza berritzeko prozesua** landu nahi da, hainbat alderdi aintzat hartuta:
 - Egunerokotasuna erraztuko duen kanpoko eta barruko diseinua: etxebizitza eredu normalizatua, intimitate guneak, bizi izango diren pertsonen ezaugarrietara egokitutako argitasuna... Hori guztia, kultura aldaketa hori bermatzeko ebidentzia zientifiko nahikoa emango duen ikerketa prozesutik abiatuta.
 - «**Zentzua duten jardueretan**» oinarrituko den egunerokoa, bertan bizi diren pertsonengan eta beraien eginkizunetan ardaztuta: arreta behar duten adinekoak, profesionalak, senideak, boluntarioak...
- Era berean, arreta eredu horrek ezinbestean eskatzen duen **antolamendu kulturaren aldaketa** burutu nahi da:
 - Rol profesional egokiak, bakoitzak eskatzen dituen konpetentziak eta trebeziak identifikatuz.
 - Langileen arteko konfiantzan eta elkarlanean oinarritutako antolamendu ereduak landuz eta erakundearen horizontalizazioa landuz.
- «**Baliabideak hornitzeko zentroaren**» eredu balioztatu nahi da, prozesuan sortutako ezagutza baliatuko duten etxez etxeko gizarte eta osasun zerbitzu tradizionalak eta berritzaileak hornitzeko koordinazio zentroa izan dadin.
- «**Kasuen kudeaketako**» eredu **esperimental**a garatzea, kalitateko arreta emateko behar diren arreta mailak integratuz: eguneko zentroa, etxebizitza zerbitzudunak, etxez etxeko «nahi erako» zerbitzuak, teknologien eta laguntza produktuen hornikuntza, aldi baterako egonaldiak zentroan, familiei laguntzeko zerbitzuak, bai eta boluntarioen ekintzatik eta komunitate esparrutik datozen ekimenak ere.
- Zentroan bertan edo ingurune hurbilean partekatutako eremuak, beste herritar talde batzuentzako jarduerak edo zerbitzuak ere eskaintzeko. Eredu berriak eskatzen dituen belaunaldi arteko sinergiak sortuko lirateke horri esker.
- Ikerketaren eta partaidetzako ekintzaren metodologiak erabiliz, **beharrizana dagoen tokian bertan zaintzak bermatuko dituen arreta eredu eskaintzea**. Helburu horiek guztiak garatuz, arreta integraleko eta integratuko oinarritzko arreta soziosanitarioko eredu sortzeko aukera izango dugu eta, horrekin batera, ezagutza hori bestelako ekimen batzuetara transferitzeko eta ekimenon ezaugarri berezietara egokitzeko eta moldatzeko aukera ere bai.

Euskadin halako eraikuntza baten lehenengo proiektua da. Europako beste herrialde batzuetan eredu horren inguruan lortu den esperientziak izaera berritzaile hori indartzen duen arren, areago indartzen du euskal gizartearen testuingurura egokitzeko planteamenduak. Izan ere,

Euskadi punta-puntan kokatzen du proiektuak, mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako ostatuak alorrean.

Donostialdean dagoen Usurbilgo hiriguneko «A.96/A.97 Miravalle» izeneko eremuan kokatzen da proposamena. Orubea Kalezar auzoaren inguruan dago eta Oriako bailararako ikuspegi itzelak ditu. 12.017 m²-ko azalera dauka.

127 lagunentzako 110 bizitoki eskainiko ditu guztira. Lau eraikin izango dira, elkarren artean beirazko elementu arinez lotuak baina era independentean funtzionatuko dutenak. Bizitokiak solairutan banatutako zazpi bizikidetza unitatetan (BU) biltzen dira. Plazako sarbideetik behera dauden solairuetan, eta lurraren malda baliatuta, unitate psikogeriatrikoetarako bi bizikidetza unitate egongo dira; goiko solairuetan, berriz, gainerako bizikidetza unitateak. 15-18 bizitoki, kanpoko terraza duen eremu erkidea, eremu horretara irekitako sukaldea eta biltegirako eta langileek erabiltzeko zenbait zerbitzu gune egongo dira bizikidetza unitate bakoitzean. Bizikidetza unitate bakoitza zatitzeko aukera egongo da eta, beraz, etorkizunean 9 bizitokiko 2 bizikidetza unitate sortu ahal izango dira.

Euskadin gaur egun dauden nagusientzako ostatuakiko desberdintasun handiena bizitokietan azalartzen da; izan ere, partekatutako gelak izan beharrean, banakako bizitokiak izango dira. Europako herrialdeetan orain dela 40 urte baino gehiago gauzatu zen paradigma aldaketa hori, pertsonen euren intimitatea eta independentzia babesteko eskariari erantzuteko asmoz. Hartara, proiektu horren bidez, adinekoek bizi nahi duten modua ekarri du Matiak Euskal Herriko eredura eta testuingurura.

Bizitokiak honelakoak izango dira: sarrera txiki bat, gorpildun aulkiak, taka-taka edo bestelakoak uzteko tokiarekin; gainera, pertsona bakoitzak nahi duen gauzekin edo altzariarekin pertsonalizatzeko aukera egongo denez, orientazioa eta identifikazioa erraz diezazkieke dementzia duten pertsonen. «Kortesiako» sukalde txiki bat ere egongo da, kozinatze balio ez arren, senide edo adiskideentzako janariak edo edariak prestatzeko balio izango duena. Bizitokiaren gune nagusian egongela eta logela egongo dira, armairu baten bidez banatuta pribatutasun handiagoa eskaintzeko, baina trenkadarik gabe, espazioa eta zabaltasun sentazioa murrizten dutelako. Azkenik, bainugela egokitua egongo da, zaintzaileek egin beharreko lanak egiteko espazio nahikoarekin. Bizitokiaren eremu osoa pribatua izango da eta, beraz, erabiltzaileak berak ekarri beharko ditu altzariak eta dekoratua. Aurreko etxebizitzan zeuden altzariak eta objektu pertsonalak ezinbestekoak izango dira etxebizitza «berria» sortzeko, erabiltzaile bakoitzaren bizimodua irudikatzen dutelako eta beraien bizitzari lotutako orogarriak biltzen dituztelako.

Usurbileko eraikuntza bukatu ondoren, Fraisoroko egoiliarrek joango dira bertara (88 erabiltzaile dira). Fraisororen gaur egungo egitura dela eta, goitik behera birgaitu beharko da eta, Usurbileko egoitza prestatuta, eraikin zaharra birgaitzeko behar diren urteetan erabiltzaileak eta langileak kokatzeko balio izango digu. Erabiltzaile berrientzako 38 toki libre ere egongo dira. Horri esker, Fraisoro birgaitzeko lanek dirauten bitartean erabiltzaileak kokatzearen arazoa konpontzeaz gain, hasiera-hasieratik zentro berria okupatuta egongo dela

bermatuko dugu. Izan ere, jakina da zentro berri bat irekitzen denean okupazio egokia lortzea eta egonkortzea izaten dela arazo handienetako bat.

Fraisoroko lanak bukatutakoan eta erabiltzaileak berriro Zizurkilera lekualdatu ondoren, gauza bera egingo dugu Rezola zentroarekin. Izan ere, egoera hobean dagoen arren, horrek ere birgaitzeko premia dauka. Kasu horretan 123 erabiltzailerentzako lekua behar izango dugu eta, beraz, ez dugu plaza berririk eskaintzeko aukerarik izango.

Lugaritzeko etxebizitza proiektua

Ezaguna da zahartzen diren pertsonen ohiko bizilekuan jarraitzea nahiago izaten dutela, baita laguntza behar dutenean ere. Horregatik, «housing» esaten dioten fenomenoak kultura aldaketa handia eragin du Europan azken hamarkadetan. Izan ere, «**etxea**» edo «**etxean bezala**» kontzeptuak landuz, zahartzen diren pertsonen beharrianetarako hurbilpena ekarri du. Hala, erabiltzaileen beharrianetara egokitutako ostatu modalitateen aukera zabal samarra eskaintzen da, betiere aintzat hartuta adinekoek adierazitako proiektuak, nahiak eta lehentasunak (etxe ingurunean bizitzea). Era berean, gizatalde guztiek berezkoa duten heterogeneotasuna ere zaintzen denez, orotariko bizilekuak eskaintzen dira eta habitata eta zerbitzuak hobeki integratuz prebenitzen dute autonomia galera.

Irizpide horiek oinarri hartuta, Europan adinekoentzako bizitegi aukera zabala dago, dagoeneko laguntza behar duten edo etorkizunean behar lezaketen pertsonen zuzenduta. Espainian gaur egun zabalduen dagoen eredu tradizionaletik urrun dago eredu hori, Espainian «tutoretzapeko» etxebizitza eskaintzen zaielako pertsona autonomo eta independenteei, eta egoitzetara lekualdatu behar izaten direlako zaintza premia areagotzen denean.

Europako zatirik handienean, zaintzak eta zerbitzuak etxeko gunetik bereizita egoten dira, erabiltzaileen beharrianetara egokitzen diren kanpoko zerbitzuak direlakoan. Horiek horrela, etxebizitza ohiko etxebizitzaren araudiaren pean egoten da, eta ez gizarte zerbitzuen araudiaren pean. Funtsezkoa da hori, aipatu dugun joera aldaketaren jatorria baita Holandan, Frantzian, Alemanian, Suedian eta Danimarkan.

«Silver économie» esaten zaion hori hezurmamitu egiten da, beraz, herritarren bizitzaren esparru horretan eta beste batzuetan. Gero eta gehiago dira adinekoentzako orotariko bizilekuen aukera zabal-zabala eskaintzen duten ekimen publiko eta pribatuak.

- Hiriguneetan integratutako inguruneetan.
- Herritar talde horren «estigmatizazioa» saihestuko duten eraikin «normalizatu».

Hala, ugalduz doa hiriaren modernitatearen paradigma bihurtzen diren eraikin bereziak diseinatzeko eta eraikitzeko ildoak.

- Modalitatea edozein dela ere, guztiontzako topaguneak eraikitzen dituzte eta, batez ere, bertan bizi diren pertsonen behar litzaketan orotariko zerbitzuen hornidura bermatzen dute: garbiketa, zaintza pertsonalak, etxebizitzako mantentze lana, bazkariak, erosketak, zerbitzu pertsonalak...

Testuinguru horretan, Matia Fundazioak Europako adinekoentzako etxebizitzetarako buruzko txosten bat egin du berrikitan Donostiako Udalarentzat, zenbait gomendio jasotzen dituen. Hona hemen nabarmenenak:

- Funtsezkoa da gizarte etxebizitzaren parkean arreta jartzea.
 - ✓ Sustatzaileen artean zahartzearen premiei eta erabiltzaileen profil berriari buruzko ezagutza zabaldu behar da.
 - ✓ Adinekoentzako ostatuaren inguruko esperientzia pilotuak eta jardunbide egokiak landu behar dira horretarako: orotariko tamainak eta ezaugarriak dituzten 50 urtetik gorakoentzako apartamentuak, belaunaldi arteko eraikinak eta abar.
 - ✓ Adinekoentzako edo baliabide gutxi dituzten pertsonentzako belaunaldi arteko ostatu partekatuak. Egoiliarrei segurtasuna eta ongizatea eskainiko dizkieten formulak identifikatu behar dira.
- Ekimen pribatua adinekoentzako alokairuko etxebizitzak eraikitzeko lanean hasia sustatu behar da.
- Etorkizunean adinekoentzako bizilekuak egitearen garrantzia azpimarratzeko zabalkunde ekintzak egin behar dira, eraikuntza enpresek sektore horretan inberti dezaten.
- Adinekoentzako bizilekuak eraiki behar dira auzoetan, zahartzen diren pertsonen jarduerarako erreferentziako plataformak ez ezik, zerbitzuak hornitzeko plataformak ere izan daitezten.
 - ✓ Gizarte eta familia loturak etetea saihestuko da horrela.
 - ✓ Adinekoek auzoari lotutako gaiei buruz iritzia emateko eta erabakitzeko aukera ahalbidetuko da horrela.
- Adinekoentzako etxebizitzetarako eta ordezkari ostatuak buruzko politikekin batera, zerbitzuak hornitzeko eredu integratua, soziosanitarioa, landu behar da, hurbileko zerbitzuak erabiliz eta zaintzen jarraitutasuna bermatuz.
- Donostiako herritarrek hemendik 25-30 urtera izango dituzten premiak aztertu behar dira, etorkizuneko hiri hobeki planifikatzeko. Aztertutako herrialdeetan bezala, honako hauek antzeman ditugu:
 - ✓ Mendekotasun maila txikia duten eta etxe egokitu batean zerbitzuak beharko dituzten adin handi-handiko pertsonen kopuruak gora egin du.
 - ✓ Gero eta gehiago garatzen ari da pertsonengan ardaztutako arreta integrala, kasuaren kudeatzaileak koordinatuta, pertsonen bizitza erraztu eta zaintza publikoen, pribatuen, familiarren eta boluntarioen hornikuntza egokia bermatzeko.
 - ✓ Hazkunde esponontziala antzematen da bakarrik bizi diren eta bizitzeko formula seguruagoak eta «babesgarriagoak» nahiago dituzten adinekoen kopuruan. Baina betiere bizimodu normalizatuan oinarrituta, «etxearen» eredura egokitutako

apartamentu edo etxebizitza handiagoetan, beste herritar batzuk bizi diren inguruetan, eta bizitza integratuagoa ahalbidetuko dieten saltegi eta zerbitzuekin.

- ✓ Adinekoentzako orotariko etxebizitzak planifikatu beharra ikusten da: apartamentu eraikinak, belaunaldi arteko eraikinak... guztiak ere auzoetan kokatuta eta inguruneke errealitateari egokitutako zerbitzuak eta arretak planifikatuta.
- ✓ Elkarre eta auzo mugimenduak ildo horretan sustatutako ekimenak (co-housinga, etxebizitza solidarioak eta, oro har, bizikidetza bultzatu eta bakardadea saihesten duten ekimen guztiak) bultzatzeko premia dago, laguntza ekonomikoen bidez, lurzorua emanaz edo eraikinaz birgaituz.
- ✓ Narriadura kognitibo arina duten pertsonentzako ostatu aukerak identifikatu beharra dago, pertsonen eta familiek egoitzetara jo nahi ez duten kasuetarako.
- ✓ Plangintza egitean, gogoan izan behar da egoitzak mendekotasun handia edo dementzia aurreratua duten pertsonen soilik zuzendutako baliabideak bihurtuko direla. Hau da, medikalizazio maila handia eta plazen premia txiki samarra izango dutela.
- ✓ Funtsezkoa da garatzen diren ekimen guztien kostua/eraginkortasuna aztertzea.
- ✓ Denontzako diseinuan edo diseinu unibertsalean oinarritutako etxebizitzak eraikitzeke araudia sustatu beharra dago, eraikinak etorkizuneko premietara egokituta egon daitezen.

Esparru kontzeptuala

Aipaturiko testuinguruan, alokairuko erregimenean eskainiko diren adinekoentzako etxebizitzak eraikitzeke proiektu pilotua jarri nahi du abian Matia Fundazioak.

Gaur egun, gure fundazioaren misioarekin bat, adinekoentzako bizitegien inguruko berrikuntza proiektua jorratzeko premia ikusten dugu, Udalarekin lankidetzan, Europar horren errotuta dauden eta Espainian eta Euskal Herrian horren urriak diren halako ekimenen eraginkortasuna baloratzeko aukera eman dezan.

Gure iritzian, halako ekimenek adinekoekin eta herritar guztiekin lagunkoia izango den hiria eraikitzen laguntzen dute, pertsonen nahiekin eta lehentasunekin bat datozen aukerak identifikatzen dituzten heinean.

Bizitza osorako etxeak

Zahartze bidean dauden pertsonentzako **bizitza osorako etxeak**, hil arte euren bizilekuak izan daitezkeen, eta betiere alokairu erregimenean. Horretarako, pertsona horiek era bateko edo besteko zerbitzuak behar izango dituztela aurreikusita, etxez etxeke zerbitzuak hornitzeko ereduaren arabera beteko dituzte euren premiak. Kontu garrantzitsua da:

- Etxebizitza araudiari egokitutako etxebizitzak izango dira.
- Eskaintzen dituzten zerbitzuak:

- ✓ Norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko Legeak xedatutako laguntzen bidez: etxez etxeko arreta zerbitzua, laguntzaile pertsonalak, eguneko zentroa, laguntza ekonomikoak eta beste.
- ✓ Aukera zabal dezakeen eskaintza pribatu osagarriaren bidez. Horri dagokionez, Matiak etxez etxeko zerbitzu zorro zabala eskain dezake, hala osasun alorrekoa nola gizarte alorrekoa: fisioterapia, geriatría, psikologia, laguntzaile pertsonalak, eguneko zentroa...
- ✓ Matiaren eskaintzak ez du inolaz ere beste zerbitzu eskaintzarik baztertuko, adibidez etxebizitzetako egoiliarrek nahi dituzten etxeko langileak edo zaintzaileak aukeratzea.

Narriadura kognitiboa duten pertsonentzako etxebizitzak

Aukera hori oso garatuta dago European, eta bizitza normalizatuko irtenbideak, ingurunean integratuak, eskaintzea du helburu, demenzia arina edo ertaina duten pertsonen eta beraien familien (gehienetan bikotekidearen) bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin. Izan ere, pertsona egoitzaren batera lekualdatzen dutenean bikotekideak harengandik bereizi beharra izaten du, edota berarekin batera sartu behar du egoitzan, gaixorik ez dagoen pertsona batentzako ingurune zail eta aurkako batean.

Aukera horrek bi etxebizitza mota hartzen ditu:

- Bikote edo familientzakoak, aukeratzen den tamainakoak. Eskabidearen arabera zerbitzuak jasoko lirake. Oso kontuan izango dira atsedenerako zerbitzuak: eguneko zentroak, boluntarioen laguntza eta bikotekideari bizitza duina izaten lagunduko dion beste edozein laguntza.
- Bakarrik bizi diren eta demenzia duten pertsonentzako etxebizitzak, bizikidetzaren diseinuaren arabera, egoera horretan dauden egoiliarren bizitza errazte aldera.

Kasu batean nahiz bestean, baina are argiago bigarren kasuan, Udalak etxebizitza irtenbideak identifikatzen eta abian jartzen hartuko du parte, bai eta bere eskumenekoak diren gizarte zerbitzuak eskaintzen ere.

Azken batean, dagoeneko abian diren beste proiektu batzuei gehitzen zaien proiektu berritzaile bat dugu aurrean, baliabide berritzaileak erabiliz Donostiako adinekoen etxebizitza premiari laguntza emango diona.

Bigarren aukerari (narriadura kognitiboa duten pertsonentzako etxebizitzari) dagokionez, Alzheimerrak jotako pertsonen senideen elkarten beharrezanez eta eskaerei erantzuten die, eta partaidetza aktiboa eskainiko zaie prozesu horretan.

Eraikinean, aipaturiko etxebizitzaz gain, eguneko zentro bat ere egongo da (gaur egun Iza eraikinean dagoena), bai eta Matiaren zerbitzu zentral guztiak eta ikerketa arloa bilduko dituzten bulegoak ere.

Bulegoak eta eguneko zentroa eraikin berrira eramango direnez, gaur egun dauden tokian (Iza zentroan) 9 plazako desgaitasun modulu bat eta 18 plazako bizitegi unitatea eraikiko dira, egungo Bermingham egoitzan daudenak osatzeko. Gimnasio berri bat ere eraikiko da, bai eta errehabilitazio arean zerbitzu hobea eta zabalagoa ematea ahalbidetuko duten bi kontsulta mediko ere.

Aurrekariak

2007ko abuztuan, Udalak jabari publikoko udal orube baten 60 urteko emakida laga zion MATIA Institutu Gerontologikoa Fundazioari, Ikerketa Gunea eraiki zezan bertan. Proiektuak Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren 4 milioi euroko dirulaguntza izenduna jaso zuen, eta 2010ean ekin zitzaion lanei.

Krisi ekonomiko orokorraren ondorioz, baina, proiektu hori finantzatzeko arazo handiak etorri ziren eta, horrenbestez, 2011ko ekainean obrak eten behar izan genituen, beharrezko finantzaketa lortu bitartean. Ordura arte, eraikinaren pilotajea, zimenduak eta egitura lanak eginda zeuden: partida horien % 80 inguru.

Gerora, proiektua berrikusi eta lurraldearen gaur egungo beharrianetara egokitu da, agiri honen lehen zatian aipatu dugun biztanleriaren zahartzeak dakarren erronkari begira.

Gaur egun, proiektua finantzatzeko bi hitzarmen ditu sinatuta Institutuak IMSERSOrekin. Horietako bakoitzak 3 milioi euroko zenbatekoa eta hiru urteko egikaritzealdia jasotzen ditu eta 2021rako lana erabat burututa egotea aurreikusten da.

Lugaritz eraikinaren inbertsioa Matia Institutu Gerontologikoa Fundazioaren gain dago, bera baita titularra. Bermingham eta Iza eraikinei dagokienez, Matia Servicios Sociales sozietateak hartuko du bere gain, bera baita eraikinen jabea.

Lanak 2019ko irailean hastea aurreikusten dugu, 2021eko abenduan amaitzeko asmoarekin.

Eraikitze orubea «AO.04 Lugaritz» arearen hego-ekialdean dago. Ekialdean eta mendebaldean bizitegiatarako orubeak ditu, eta azpimarratu egin behar da Jose Matia Calvo Fundazioaren lurzoruak dituela alboan: Ricardo Bermingham, CARE IZA eta Julian Rezola Zentro Gerontologikoa daude bertan, hain zuzen. 13.153 m²-ko azalera dauka.

Eraikinak bost solairu izango ditu, honako zerbitzu hauek jasotzeko:

- 55 apartamentu: 3 gelako 7, eta 2 gelako 48.
- 93 aparkaleku: 33 aparkaleku apartamentuekin batera alokatuko dira, eta gainerakoak Fundazioko langileei alokatuko zaizkie.
- Komunitate zerbitzuetarako bi gela: bata 96 m² ditu eta besteak 90 m².
- Matiaren eta Institutuaren bulego nagusiak.
- Eguneko zentroa.

SOZietateari eta Langileei Buruzko Gaiak

LANGILEAK

Jose Matia Calvo Fundazioa (aurrerantzean, Matia Fundazioa), Matia Servicios Sociales eta Gerozerlan erakundeek 1.001 langile dituzte guztira, horietatik % 66 Matia Fundazioan eta % 34 Gerozerlanen. Matia Servicios Sociales sozietateak langile bakarra dauka, lanaldiaren % 30eko kontratuarekin. Matia Fundazioaren datuak sartu ditugu ondoko taulan.

Langileen kopurua, kontratu motaren arabera

		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Matia Fundazioa	Mugagabea	366	74	440
	Aldi baterakoa	187	38	225
Gerozerlan	Mugagabea	188	27	215
	Aldi baterakoa	107	14	121
GUZTIRA		848	153	1001

2018ko abenduaren 31ko langileei buruzko datuak.

Erretiro partzialeko kontratuak (Matia Fundazioko 25 emakume eta 14 gizon; Gerozerlaneko 6 emakume) aldi baterako kontratuen multzoan sartu dira, nahiz eta guztiek ere aurretiaz kontratu mugagabea izan.

Langile kopuruaren urteko batezbestekoa

		Emakumeak			Gizonak			
		<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	Guztira
Matia Fundazioa	CEMI	-	3	1	-	1	1	6
	Arduradunen foroa		8	5	-	2	4	19
	Gainerako pertsonak	37,4	239,65	156,51	8,16	40,88	35,44	518,04
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	2	-	-	1	-	3
	Gainerako pertsonak	36,75	137,57	70,48	2,78	24,11	10,56	282,25
GUZTIRA		74,15	390,22	232,99	10,94	68,99	51	828,29

Adina 2018ko abenduaren 31n.

Langileen kopurua, lanaldi motaren arabera

		Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Matia Fundazioa	Lanaldi osoa	332	80	412
	Lanaldi partziala	221	32	253
Gerozerlan	Lanaldi osoa	197	35	232
	Lanaldi partziala	98	6	104
GUZTIRA		848	153	1001

2018ko abenduaren 31ko langileei buruzko datuak.

Erretiro partzialeko kontratuak (Matia Fundazioko 25 emakume eta 14 gizon; Gerozerlaneko 6 emakume) lanaldi partzialeko kontratuen multzoan sartu dira, nahiz eta guztiek ere aurretiaz lanaldi osoko kontratua izan.

KANPOKO ENPLEGUA (INSTALAZIOETAN ARITZEN DIREN AZPIKONTRATAK)

	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Matia Fundazioa + Gerozerlan	129	94	223

KONTRATUEN EGONKORTASUNA ETA LANGILEEN TXANDATZE MAILA

Matia Fundazioak kontratuen egonkortasunaren aldeko apustua egiten du eta, horregatik, kontratu gehienak mugagabeak dira. Aldi baterako kontratuak egiten direnean, beharrian zehatz batzuk estaltzeko egiten dira (bitarteko lanak eta, hein txikiagoan, lan jakin baterako kontratuak eta zereginak pilatu direlako egindakoak). Gaur egun langileen txandatzeak murrizteko formulak lantzen ari gara, kontratu mugagabeak gehiago izan daitezen.

Kontratu mugagabeen urteko batezbestekoa (%-tan)

		Emakumeak			Gizonak			
		<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	Guztira
Matia Fundazioa	CEMI	-	3	1	-	1	1	6
	Arduradunen foroa	-	8	5	-	2	3	18
	Gainerako pertsonak	5,36	175,53	129,43	2,99	30,36	30,02	373,69
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	2	-	-	1	-	3
	Gainerako pertsonak	8,33	100,68	58,98	0,72	17,46	5,21	191,38
GUZTIRA		13,69	289,21	194,41	3,71	51,82	39,23	592,07

Adina 2018ko abenduaren 31n.

Aldi baterako kontratuen urteko batezbestekoa (%-tan)

		Emakumeak			Gizonak			
		<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	Guztira
Matia Fundazioa	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	1	1
	Gainerako pertsonak	32,04	64,12	27,08	5,17	10,52	5,42	144,35
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	28,42	36,94	11,5	2,06	6,65	5,35	90,92
GUZTIRA		60,46	101,06	38,58	7,23	17,17	10,77	235,27

Adina 2018ko abenduaren 31n.

Erretiro partzialeko kontratuak (Matia Fundazioko 25 emakume eta 14 gizon; Gerozerlaneko 6 emakume) aldi baterako kontratuen multzoan sartu dira, nahiz eta guztiek ere aurretiaz kontratu mugagabea izan.

Erakundeko talentuari eusteko jarduketak ere egiten ditugu:

- Harrera prozedura eguneratu egin dugu. Harrera hurbila eta erakargarria eskaintzeaz gain, sartu berria den pertsonaren jarraipena egiten dugu, lanean dituen sententzioen eta arazoen berri izateko eta, hala, esperientzia txarrak zuzentzeko.
- Pertsona bakoitzak nahiago duen ordainbidea aukeran uzten dugu, norberaren egoera pertsonalari egokitzeko.
- Lanpostu batzuetan ez dugu lanaldi osotik beherako plaza hutsik eskaintzen, plaza horiek betetzeko interesa duten pertsona gehiago erakarri ahal izateko.

PARTZIALITASUNA

Erakundeak lanaldi osoko enplegu egonkorren aldeko apustua egiten du: langileen % 78k lanaldi osoko kontratua du, eta gainerako % 22ak lanaldi partzialekoa.

Lanaldi osoko kontratuen urteko batez bestekoa (%-tan)

		Emakumeak			Gizonak			Guztira
		<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	
Matia Fundazioa	CEMI	-	3	1	-	1	1	6
	Arduradunen foroa		9	5		2	4	20
	Gainerako pertsonak	21,51	180,02	121,38	4,57	35,51	29,01	393
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	2	-	-	1	-	3
	Gainerako pertsonak	25,09	113,87	56,03	1,65	19,95	8,46	225,05
GUZTIRA		46,6	307,89	183,41	6,22	59,46	42,47	646,05

Adina 2018ko abenduaren 31n.

Kontratua partziala edo lanaldi osokoa den hartu da kontuan.

Pertsona bat «arduradunen foroan» eta «gainerako pertsonak» multzoan, bietan, dago. Osorik sartu dugu «arduradunen foroa» izeneko multzoan.

Lanaldi partzialeko kontratuen urteko batez bestekoa (%-tan)

		Emakumeak			Gizonak			Guztira
		<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	
Matia Fundazioa	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	16,89	57,63	35,13	3,59	5,37	6,43	125,04
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	11,66	23,7	14,45	1,13	4,16	2,1	57,2
GUZTIRA		28,55	81,33	49,58	4,72	9,53	8,53	182,24

Adina 2018ko abenduaren 31n.

Kontratua partziala edo lanaldi osokoa den hartu da kontuan.

Erretiro partzialeko kontratuak (Matia Fundazioko 25 emakume eta 14 gizon; Gerozerlaneko 6 emakume) lanaldi partzialeko kontratuen multzoan sartu dira, nahiz eta guztiek ere aurretiaz lanaldi osoko kontratua izan.

TALDEAREN PROFILA

Plantilla kategoriaren, generoaren eta foroaren arabera, 2018ko abenduaren 31n

		Emakumeak			Gizonak			
		<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	Guztira
Matia Fundazioa	CEMI	-	3	1	-	1	1	6
	Arduradunen foroa		8	5		2	4	19
	Gainerako pertsonak	64	289	183	11	46	47	640
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	2	-	-	1	-	3
	Gainerako pertsonak	55	162	76	3	27	10	333
GUZTIRA		119	464	265	14	77	62	1001

72

Kontratazio berriak eta borondatezko bajak

Alta berriak		Emakumeak			Gizonak			
		<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	Guztira
Matia Fundazioa	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	37	19	4	4	6	2	72
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	28	32	5	4	6	0	75

Borondatezko baja		Emakumeak			Gizonak			
		<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	Guztira
Matia Fundazioa	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	4	5	-	3	2	-	14
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	10	6	-	1	-	1	18

2018an, 147 langile berri sartu eta borondatezko 32 baja izan dira bi erakundeetan.

ORDAINSARIAK, HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA KANPORATZEAK

Matia Fundazioan lan egiten duten pertsona guztiak indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan (Matia Fundazioa 2016-2017, Gerozerlan, adostutako zentroko hitzarmena, 2015-2016) sailkatutako kategoriaren batean daude eta, beraz, hitzarmen horien babespean aritzen dira. Hitzarmenetan zehaztuta dago, halaber, ordainsari gordina. Ardurako lanpostuetan, kategoria bakoitzerako zehaztutako ordainsari gordinaz gain, ardura plus bat ere jasotzen da, langilearen eta zuzendaritzaren artean adostuta eta agiri batean jasota.

Langileren bat kaleratuz gero, hauxe zehazten du Matia Fundazioaren hitzarmenak: «Langileen Estatutuaren 52. artikuluekin bat datozen kausa objektiboak tarteko eteten bada kontratua, benetan lan egindako urte bakoitzeko ordainsari errearen 1,5 hilabete ordainduko dira, gutxienez, eta 12 urteraino gehienez; hau da, 18 hilabeteko benetako ordainsaria gehienez»; «Kontratua edozein izanik ere, bidegabeko kaleratzeak, diziplinazko kaleratzeak edo kaleratze objektiboak —berdin banakakoak nahiz kolektiboak— egonez gero, lan egindako urte bakoitzeko 45 eguneko kalte ordaina ordainduko da, 42 hilabete gehienez». Gerozerlanen zentroetako hitzarmenetan hauxe agertzen da: «Kontratua edozein izanik ere, bidegabeko kaleratzeak, diziplinazko kaleratzeak edo kaleratze objektiboak —berdin banakakoak nahiz kolektiboak— egonez gero, lan egindako urte bakoitzeko 45 eguneko kalte ordaina ordainduko da, 42 hilabete gehienez.

Lan hitzarmen kolektiboetan erakundeko pertsona guztien aldeko gizarte onurak daude jasota, berdin dio kontratu mugagabea edo aldi baterakoa duten, lanaldi partzialean edo osoan ari diren (401-2).

SOLDATA ARRAKALA

Emakumeek gizartearen esparru askotan jasaten duten berdintasun ezaren aurka borrokatu behar da. Ildo horretan, gure erakundean dagoen soldata arrakala kalkulatzeko, egon litezkeen desbiderapenak aztertu eta zuzentzeko asmoz.

Ondoren, pertsona bakoitzaren batez besteko soldata gordina azalduko dugu. Zenbatekoak kalkulatzeko irizpide jakin batzuk erabili ditugu, uste baitugu ez dagoela gutxieneko oinarri estatistikorik: ez dira aztertu 10 lagunetik beherako taldeak, 3 lagunetik beherako geruzak, eta ez dira kontuan hartu urtearen hamarren batean baino denbora laburragoan lan egin duten pertsonak. Era berean, ez ditugu zenbatu zenbait egoeratan (amatasun eta aitatasun bajaran, haurdunaldiko arriskuagatik bajaran edo ordainketa zuzeneko gaixotasun egoeran) egon diren langileak, ez dugulako identifikatu Gizarte Segurantzak ordaindutako soldata. Erakundearen zuzendari nagusia ere kalkulatik kanpo utzi da, kontratu baldintza bereziak dituelako.

		Emakumeak			Gizonak		
Matia Fundazioa + Gerozerlan	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	
CEMI + Arduradunen foroa	-	54.200	64.657	-	52.915	55.658	

Matia Fundazioa + Gerozerlan	Emakumeak	Gizonak	Soldata arrakala
CEMI + Arduradunen foroa	58.603	54.835	+% 6,87

		Emakumeak			Gizonak		
MATIA FUNDAZIOA	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	
A TALDEA	36.472	43.745	46.579	*****	47.695	57.827	
B TALDEA	32.050	32.400	38.785	25.755	31.852	38.843	
C TALDEA	-	30.402	34.754	*****	31.406	*****	
D TALDEA	23.399	25.167	27.034	*****	25.718	28.156	
E TALDEA	*****	*****	*****	*****	*****	*****	

*****: Ez dago oinarri estatistiko nahikorik

MATIA FUNDAZIOA	Emakumeak	Gizonak	Soldata arrakala
A TALDEA	44.701	50.861	—% 12
B TALDEA	34.651	32.120	+% 7,87
C TALDEA	33.080	31.157	+% 6,17
D TALDEA	25.968	27.164	—% 4,40
E TALDEA	*****	*****	*****

*****: Ez dago oinarri estatistiko nahikorik.

Multzo berean sartu ditugu CEMI (Zuzendaritza Batzordea) nahiz Arduradunen Foroa osatzen duten pertsonak, oso antzerako baldintzak dituztelako eta gure ustez koherenteagoa delako batera aztertzea. Talde horretan % 6,87ko aldea dago emakumeen alde. Erakundean emakume arduradun asko daudelako gertatzen da hori.

Matia Fundazioaren A taldean gizonen aldeko soldata arrakala dago. Arrazoia haxe da: orain dela urte batzuk sendagile gehienak gizonetakoak ziren, eta A taldeko gainerako kideek baino gehiago kobratzen zuten. Azken urteetan, ordea, emakumeen eta gizonen kopuru berdina sartu da talde horretan eta, ondorioz, urteak joan ahala soldata arrakala berdinduz joango da.

B eta D taldeetan, emakumeen aldeko soldata arrakala dago. Talde horietan ari diren langileen antzintasun plusak eragiten du hori. Zaintzen alorrean gizon gehiago sartu ahala, arrakala murriztuz joango da.

D taldean gizonak emakumeak baino soldata handiagoa dute batez beste. Arrazoa, gaueko txandan ordaintzen den plusa, historikoki gizon gehiago aritu baitira txanda horretan. A taldean bezala, azken urteetan talde horretan lanean hasi diren gizon eta emakumeen kopurua antzerakoa da eta, ondorioz, urteak joan ahala arrakala berdinuz joango da.

GEROZERLAN	Emakumeak			Gizonak		
	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte
A TALDEA	*****	38.857	*****	*****	*****	*****
B TALDEA	33.137	34.254	*****	*****	*****	*****
C TALDEA	*****	24.422	24.133	*****	25.378	*****
D TALDEA	21.210	22.114	22.887	19.007	23.657	21.820
E TALDEA	*****	*****	*****	*****	*****	*****

GEROZERLAN	Emakumeak	Gizonak	Soldata arrakala
A TALDEA	38.857	41.667	−% 6,70
B TALDEA	33.652	31.667	+% 6,26
C TALDEA	24.338	25.378	−% 4
D TALDEA	22.197	22.672	−% 2
E TALDEA	21.059	*****	*****

Gerozerlanen ere Matia Fundazioaren antzerako datuak daude soldata arrakalari dagokionez, C taldean izan ezik. Talde horretan, jaiegunetan lan egitea eskatzen duten lanpostuetan gizonetakoak nagusi dira eta emakumeak, berriz, gehiago dira astelehenetik ostiralera lan egitea eskatzen duten lanpostuetan. Jaiegunetako plusak eragiten du gizonen soldata handiagoa izatea.

Erakundearen lehen berdintasun plana 2009ko urtarrilean idatzi zen. Harrezkero zenbait aldiz eguneratu da, azkenengoz 2017an. Honako neurri hauek daude jasota berdintasun planean:

- **Lanaldiaren iraupena eta hura egokitzeko neurriak:** adingabeak zaintzeko lanaldia murriztea eskatzen dutenei urteko egutegia murrizteko aukera ematea, familia bizitzaren premiak aurretiaz planifikatu ahal izateko.
- **Trebakuntza neurriak:** emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza berezia ematea langileen kudeaketaren alorrean ari diren pertsona guztiei; eszedentzian dauden pertsonen prestakuntzarako bidea erraztea; familia kontziliazioari lotutako egoeretan jardunaldia murrizteko aukera eskaintzea; hizkera egokia erabiltzeko kultura sustatzea eta lanpostu zehatz bat genero jakin batekin lotzea dakarten izen guztiak baztertzea eta hizkera inklusibo batera jotzea.
- **Sustapenari eta ordainsariari lotutako neurriak:** lan hitzarmen propioa ezarriko dela bermatzea, generoagatiko, arrazagatiko edo erlijioagatiko diskriminazio guztiak baztertuta; gizon edo emakumeak gutxi ordezkaturik dauden taldeetan (hala arreta zuzenekoetan nola administratiokoetan) lanbide sustapenerako deialdietara aurkez daitezkeen bultzatzea; zerbitzu guztietan generoaren arabera osatutako egoteko neurriak ezartzea eta, langile berriak hautatu behar direnean, meritu eta kualifikazio

berdina egonez gero, zerbitzuan presentzia txikiena duen sexua lehenesteko irizpidea erabiltzea.

- **Etxeko eta laneko bizitzak bateragarri egiteko neurriak:** Lan hitzarmen propioa eta bertan zehaztutako gizarte hobekuntzak ezarriko direla bermatzea. Alegia:
 - Ezkontzeagatiko edo izatezko bikotea egiteagatiko baimena.
 - Bikotekidea erditzeagatiko baimena.
 - Bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen, neba-arreben, biloben eta aitona-amonen gaixotasun larriagatiko baimena.
 - Ezkontide/bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen eta neba-arreben heriotzagatiko baimena.
 - Neba-arreben eta seme-alaben ezkontzagatiko baimena.
 - Ohiko etxebizitza aldatzeagatiko baimena.
 - Gizarte Segurantzako espezialistarengana joateko behar den denborarako baimena.
 - Norberaren eginbeharretarako baimena.
 - Edoskitze aldian, ordubeteko edo horren pareko atsedenaldia lanaldi bakoitzean, haurrak urtebete izan arte. Baimen hori amak nahiz aitak erabil dezake, biak ala biak lanean ari badira.
 - Seme-alabak 3 urte bete arte eszedentzian egoteko aukera.
 - Azterketak egiteko lanaldirako baimena.
 - 1 eta 5 hilabete arteko soldatarik gabeko baimena.
 - 5 urtera arteko borondatezko eszedentzia, lehenengo 3 urteetan lanpostua erreserbatuta.
- **Sexua dela eta lanean egiten den jazarpenaren aurkako prebentzio neurriak:** «Jazarpen kasuetan jarduteko prozedura», «Arrisku psikosozialak saihesteko prozedura: gatazken kudeaketa portaera erasokorren aurrean», eta «Balorazio zerbitzuan indarkeria eta erasoak prebenitzeko eta halakoak gertatzen direnean jarduteko neurriak» bete egingo direla bermatzea, Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bitartez.

LANBIDE GARAPENAREN EREDUA

2003. urteaz geroztik, jarduera profesionala ebaluatzeko eredua dauka Matia Fundazioak, azken urteetan eguneratuz joan dena. Azken eguneraketa 2014an egin zen, ebaluazio sistema errazagoa eta bizkorragoa zehazteko.

Azken bi urteetan langileen % 70ek baino gehiagok jaso du jarduera profesionalaren ebaluazioa.

LANEKO SEGURTASUNA: LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN KUDEAKETA

Gure langile eta kolaboratzaileen segurtasuna, osasuna eta ongizatea lehentasuntzat jasota dago Matia Fundazioaren politikan. Horretarako, erakundearen kudeaketa prebentiboan (*GRI 103: kudeaketa ikuspegia*) txertatu ditugu segurtasuna eta osasuna, biak ala biak sustatzeko asmoz.

Jakinik oso garrantzitsua dela prebentzio baldintza egokiak izatea, indarrean dagoen araudia betetzen dugu Matia Fundazioan.

Matia Fundazioko langileen segurtasuna, osasuna eta ongizatea sustatu eta bermatzeko xedez, arriskuen eta jardura prozeduren berri ematen diegu gura etortzen diren langile berriei. Adibidez, lan istripurik izanez gero nola jokatu behar duten (laguntza zentroak, telefonoak, helbideak, nori jakinarazi...), laneko medikuaren ingurukoak (non dagoen, noiz jo behar duten berarengana) eta langilearentzat esparru horretan interesgarriak izan daitezkeen beste informazio batzuk. Aldian behin informazio eta prestakuntza hori birziklatu egiten da eta horren berri ematen zaie langile guztiei.

Langileei arrisku bereziei buruz helarazitako informazio kopurua	2016	2017	2018
Matia Fundazioa	137	87	71
Gerozerlan	267	60	66

**Datu horietan agertzen dira Matia Fundazioko langileei prebentzioaren alorrean eman zaien informazio guztia (langile berriei emandakoa eta birziklatutakoa).*

Langileei 19. artikuluari buruz emandako prestakuntzen kopurua	2016	2017	2018
Matia Fundazioa	107	78	62
Gerozerlan	172	74	61

**Matia Fundazioko langileei 31/1995 Legearen 19. artikulua inguruan eman zaien prestakuntza kopurua jasotzen dute datu horiek.*

Aurreko bi tauletan ikus daitekeenez, azken 3 urteetan murriztu egin dira prestakuntza eta informazio ekintzak. 2015ean Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua (PZM) sortu izanak azaltzen du murrizketa hori. Izan ere, PZM sortu aurretik, Matia Fundazioa osatzen duten erakundeek hirugarrenen prebentzio zerbitzuen bidez kudeatzen zuten laneko arriskuen prebentzioa, nork bere aldetik. PZM sortu eta haren bidez lanean hasi ginenetik, ordea, irizpideak, agiriak eta abarrak bateratzeko lanari ekin genion eta, ondoren, arriskuak ebaluatzeko irizpideak finkatu eta gure erakunde guztietan zabaltu genituen. Horrenbestez, lehen hiru urteetan PZMk informazio berritua eta 19. artikulua inguruko prestakuntza eguneratua eskaini zien langileei; gaur egun, urtetik urtera langile gehiagok betea dute atal hori.

Matia Fundazioak uste du osasunaren zaintza oso garrantzitsua dela eta, beraz, langile guztiei eskaintzeaz gain, eskuz esku aritzen da laneko sendagile taldearekin gure langileen segurtasuna eta osasuna hobetzen eta sustatzen. Ildo beretik, asmo hori lortzeko jarduerak ere

jorratzen ditu: lantokiak egokitzea, aurretiaz zehaztutako protokoloetan oinarritutako azterketa bereziak, prozesu medikoak arintzeko proba osagarriak eskatzea, sendagileen aholkularitza...

Luzaroan lanik egin gabe egon diren eta sartu berriak diren langileentzako kontsulta informatua indartu dugu eta ildo horri eutsi behar diogulakoan gaude, erakundean aritzen garen pertsona guztien ongizatea zaintzen jarraitzeko.

	Osasun azterketen kopurua		Partaidetza tasa	
	MATIA	GEROZERLAN	MATIA	GEROZERLAN
2016	253	151	% 48.6	% 49.1
2017	261	180	% 48.8	% 53
2018	288	155	% 53.2	% 53.9

**Batez besteko plantillan oinarritu gara partaidetza tasa lortzeko, adierazitako aldiak kontratatutako orduak aintzat hartuta (Finantza eta Ekonomia Departamentuak emandako batez besteko plantillari buruzko datuak).*

Ikus daitekeenez, 2018an Gerozerlanen behera egin du osasun azterketen kopuruak; Txara I zentroa erakundetik irten izanak eragin du jaitsiera, langileen kopuruak ere behera egin duelako. Horregatik, partaidetza tasak ez du behera egin.

Gure jardueraren zatirik handiena egoitza zentroetan egiten dugunez, larrialdiko jardueren arloko prestakuntza eta esparru horri lotutako dokumentazio guztia oso garrantzitsua da eta aldi-aldi berrikusi egiten dugu. Gainera, simulakroak egiten ditugu eta kanpoko eta barruko prestakuntza eskaintzen diegu langileei: nola jokatu behar duten lan egiten duten zentroan larrialdirik badago, nola erabili itzalgailuak eta suteetarako ur harguneak eta abar.

2018an 6 simulakro egin ditugu zentroetan, eta langileak horretarako prestatu ditugu.

LARRIALDIEN INGURUKO PRESTAKUNTZA	2016		2017		2018	
	MATIA	GEROZERLAN	MATIA	GEROZERLAN	MATIA	GEROZERLAN
Larrialdietarako prestakuntza (simulakroak)	89	32	61	136	59	89
Suteak itzaltzeko prestakuntza	19	15	17	15	14	25

Langileen ordezkartza osasunaren eta segurtasunaren inguruko batzorde formaletan (langileak/enpresa)

Matia Fundazioan bi segurtasun eta osasun batzorde bereizi daude, erakundearen arabera.

- Matia Fundazioko Segurtasun eta Osasun Batzordea.
- Gerozerlaneko Segurtasun eta Osasun Batzordea.

Matia Fundazioko Segurtasun eta Osasun Batzordean prebentzioko 4 ordezkari eta erakundearen 4 ordezkari daude. Osasuneko eta segurtasuneko bi teknikarik ere hartzen dute parte, baina ez dute boto eskubiderik.

Gerozerlaneko Osasun eta Segurtasun Batzordean prebentzioko 8 ordezkari daude (erakundeko zentroak ordezkatzeko), bai eta erakundearen 8 ordezkari ere. Prebentzioko teknikariek ere hartzen dute parte, baina boto eskubiderik gabe.

Batzorde horiek Matia Fundazioko langile guztiak ordezkatzeko dituzte, langileen hauteskunde sindikalen bidez aukeratzen dituzten langileen ordezkarien artean aukeratzen baitira prebentzioko ordezkariak, Estatuko Legeriak agintzen duen bezala.

Batzorde horiez gain, laneko arriskuen prebentzioa era integratuan lantzeko lantalde eta prozesu talde bereziak ditu Matia Fundazioak, egunerokoan gure lan esparruan sortzen diren arazoei zuzeneko erantzuna emateko asmoz. 2018an 8 bilera egin dira batzordeekin. Orobat, bilerak egin dira prozesuekin, zerbitzuekin eta taldeekin ere.

Istripu motak eta istripuen maiztasun tasak, gaixotasun profesionalak, galdutako egunak, absentismoa eta lan istripuagatiko edo gaixotasun profesionalagatiko heriotzen kopurua

Hurrengo tauletan agerraraziko ditugu 2016-2018 aldian erakundean izandako istripu motak, istripu arinak nahiz larriak zenbatuta.

Matia Fundazioak Gipuzkoan egiten du jardunik gehiena eta, beraz, istripu gehienak lurralde horretan gertatu dira.

Istripu motak

2018	MATIA FUNDAZIOA		GEROZERLAN	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
BAJA ERAGIN DUTEN ISTRIPUAK	24	4	28	6
BAJARIK GABEKO ISTRIPUAK	120	18	182	16
GERTAKARIAK	8	1	13	0
GAIXOTASUN PROFESIONALAK	0	0	0	0

2017	MATIA FUNDAZIOA		GEROZERLAN	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
BAJA ERAGIN DUTEN ISTRIPUAK	29	3	27	7

BAJARIK GABEKO ISTRIPUAK	132	14	224	27
GERTAKARIAK	3	0	2	0
GAIXOTASUN PROFESIONALAK	0	0	1	0

2016	MATIA FUNDAZIOA		GEROZERLAN	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
BAJA ERAGIN DUTEN ISTRIPUAK	17	5	25	2
BAJARIK GABEKO ISTRIPUAK	170	16	190	21
GERTAKARIAK	3	1	4	0
GAIXOTASUN PROFESIONALAK	0	0	1	0

Istripuen maiztasun tasa:

Zehaztu egin behar dugu azken hiru urteetan ez dela lan istripuagatiko edo gaixotasun profesionalagatiko heriotzarik izan erakundean. Izan ere, 2016-2018 aldian istripu larri bakarra egon da (miokardioko infartu arina 2017an Gerozerlanen). Langileak baja luzea izan zuen horren ondorioz, baina ez zen heriotzarik izan.

MAIZTASUN TASA*	MATIA FUNDAZIOA		GEROZERLAN	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
2016	26.57	40.17	58.34	29.82
2017	45.36	21.38	65.5	108.28
2018	36.37	29.31	84.02	116.47

*Maiztasun tasa: baja eragin duten lanaldiko istripuen kopuru osoa / lan egindako ordu errealen kopuru osoa * 1.000.000. Berriz gaixotzeak eta in itinere izandako istripuak ere zenbatzen dira.

Gure erakundeetako batez besteko plantilla:

	MATIA FUNDAZIOA		GEROZERLAN	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
2016	433.35	87.64	267.07	40.6
2017	438.43	95.92	293.19	46.32
2018	448.51	92.68	250.11	37.55

*Taulan agertzen diren epealdietan kontratatutako ordu kopuruetan oinarritu gara batez besteko plantilla zehazteko.

Benetan lan egindako orduak:

	MATIA FUNDAZIOA		GEROZERLAN	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
2016	639.821	124.468	428.487	67.071
2017	639.329	140.340	412.184	64.646
2018	659.849	136.451	333.235	50.223

* Benetako lan egindako orduak kalkulatzeko, langileentzat zehaztuta lanordua zenbatu dira, eta absentismo orduak (baimenak, absentziak, bajak...) kendu zaizkio emaitzari.

Lan istripuen eta gaixotasun profesionalen ondorioz galdutako egunak:

	MATIA FUNDAZIOA		GEROZERLAN	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
2016	513	270	554	68
2017	699	98	1034	134
2018	1026	124	741	87

*Bajetako egun naturalak zenbatzen dira. Egun horietan sartu dira, gainera, beste enpresa batean istripua izan duten erakundeko langileak.

Estatuko laneko legeria eta laneko arriskuak prebenitzeko 31/1995 Legea aintzat hartuta, gertatzen diren lan istripuen % 100 jakinarazten du Matia Fundazioak: bai baja eragiten duten istripuak bai bajarik gabeko istripuak. Guri dagokigunez, horretarako gaitu den DELTA aplikazioa erabiltzen dugu Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari istripuen berri emateko.

Jarduerari lotutako gaixotasunen intzidentzia handia edo arrisku handia duten langileak

Matia Fundazioan ez dugu gaixotasun kutsakorren edo gaixotasun larrien arrisku handirik edo intzidentzia handirik. Aurreko atalean adierazi dugun bezala, larritzat sailkatutako istripu bakarra izan dugu gurean: lantokian gertatu den miokardioko infartu arin bat. Gertakaria ikertu ondoren, pertsonaren berezko faktoreek eragindako istripua izan zela ebatzi zen eta, beraz, ez zen prebentzio neurririk edo neurri zuzentzailerik ezarri.

Sindikatuetikiko akordio formaletan aztertutako osasun eta segurtasun gaiak

2018an, Matia Fundazioaren hitzarmen kolektiboa negoziatu dute erakundeak eta enpresa batzordeak (atal sindikalak), eta besteak beste arriskuak prebenitzeari buruzko gaiak aztertu dituzte (lanaldi murriztuak, gizarte hobekuntzak eta beste). Gaur egun, negoziazio prozesuak jarraitu egiten du eta, beraz, ez da zehaztu zer mailatan landu behar diren osasunari eta segurtasunari lotutako gaiak.

Dena dela, Matia Fundazioak badauka lan hitzarmen bat indarrean eta bertan jasota dago 31/1995 Legea betetzeko konpromisoa.

GIZA ESKUBIDEAK

Matia Fundazioa Gipuzkoan aritzen da, tokiko erakundea gara. Europar Batasunaren eremuan aritzen garenez, Nazio Batuen giza eskubideen gutunean jasotako giza eskubideak bete egingo ditugula berma dezakegu.

Pertsona guztien (langileen, boluntarioen, erabiltzaileen eta beraien senideen) eskubideak eta betebeharrak zehazten dituen bizikidetza gidaliburua landu dugu. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Euskadiko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen betebeharrak eta eskubideen gutuna onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak hartu ditugu eskuliburua idazteko oinarri gisa. Hau da:

- Duintasunerako eskubidea. Inolako diskriminaziorik ez jasateko eta tratu duina jasotzeko oinarritzko eskubideak bermatzeaz gain, arreta pertsonalizatua ere gehitu dugu atal honetan. Erabiltzailearen arreta eta bizitza plana prestatzen dugu horretarako, aldian-aldian berrikusten dena.
- Pribatutasun eskubidea.
- Autodeterminazio eskubidea.
- Autonomia funtzionalerako eskubidea.
- Aukeratzeko eskubidea.
- Gogobetetzeko eta pertsona gisa errealizatzeko eskubidea.
- Norberaren eskubideak ezagutu eta defendatzeko eskubidea.

Betebeharrak ere jasotzen ditu gidaliburuak:

- Bizikidetza arauak betetzea.
- Pertsonak eta instalazioak errespetatzea.
- Anomaliak eta irregulartasunak jakinaraztea.

Alabaina, urrats bat gehiago ere egin dugu, erakunde gisa, adinekoen ongizatean jartzen baitugu indarra. Eta ikuspegia zabaldu eta langileen ongizatea ere hartzen dugu aintzat, erabiltzaileei tratu ona eman nahi izatekotan, ezinbestekoa baita langileen ongizatea ere bermatzea.

Gogoeta horren ondorioz, lan egiteko eta harremanetan jartzeko modua egokitze aukera emango digun kultura aldaketa jorratu dugu, pertsonengan ardaztutako arreta ereduaren bitartez.

Langileei laguntzeko neurriak

Matia Fundazioak erakundean ari diren langileei laguntzeko ahalegina egiten du, beraien egunerokoa ahalik eta errazena izan dadin. Lan hitzarmenean jasota dauden orotariko laguntza neurriak (gizarte zerbitzuak, bati bat) erabiltzen ditu, Matia Fundazioan lan egiten duten pertsonen egunerokoari eragiten dietenak.

Haurren lana eta nahitaezko lana arbuiatzea

Matia Fundazioko langile guztiak Gipuzkoan aritzen dira; bertako legeriak argi eta garbi zedarritzen dituen enplegarritasunaren mugak, zorrotz zigortzen du muga horiek haustea. Matia Fundazioan lan egiten duten pertsona guztiak 18 urte baino gehiago dituzte.

JAZARPENA

Langileren batek beste langile baten aldetik indarkeria edo jazarpena jasaten badu, protokolo zehatz bat jartzen da abian: kasuaren berri duen pertsonak edo kaltetutako pertsonak Segurtasun eta Osasun Batzordeari ematen dio gertatuaren berri, dela prebentzioko ordezkarien bidez, dela langileen ordezkarien bidez. Horretarako, ordeza, jazarpenak 6 hilabetez iraun behar du, gutxienez, eta pertsona baten kontra behin eta berriro egin behar da.

Bere horretan jazarpenatzat jo ez diren gertakari batzuk jaso dira, eta guztiak ere erregistratuta gelditu dira. Gertakariak laneko arriskuen prebentzioari jakinarazten zaizkio, iker ditzan, baina askotan zerbitzuan bertan konpontzen dira, arduradunaren edo taldearen esku-hartzea tarteko. Kaltetuek, langileen ordezkariak edo prebentzioko ordezkariak (sindikatuak) har dezakete parte bileran.

19. artikulua inguruko prestakuntzetan azaltzen da nola antolatzen den Matiako prebentzio alorra eta zer ordezkari organo dauden. Alegia: segurtasun eta osasun batzordeak, prebentzioko ordezkariak, langileen ordezkariak (sindikatuak) eta baita zentroetako eta zerbitzuetako arduradunak eta Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuak ere. Jazarpen protokoloa dagoela eta beharrezkoa ikusiz gero erabili egin daitekeela ere azaltzen da.

Protokoloa

Lanean debekatuta dauden portaerak, jazarpen moralak direlako

Agintekeria

- Langilea etengabe jardunik gabe edo inkomunikatuta uztea, horretarako inolako arrazoirik egon gabe.
- Langileari esleitu zaizkion bitartekoekin bete ezin diren aginduak ematea.
- Alferrikako lanak, balio produktiborik ez dutenak, eginaraztea.
- Enpresaren aurkako kexak, salaketak edo eskariak aurkeztu dituzten langileen edo lagundu dietenen aurkako errepresaliak.

Tratu iraingarria

- Langilea behin eta berriro iraintzea edo gutxiestea.
- Beste batzuen aurrean behin eta berriro errieta egitea.
- Lanari edo bizitza pribatuari buruzko zurrumurru faltsuak zabaltzea.

Jazarpen diskriminatzailea (TRLISOSen 8.13 bis artikulua), honako hauen ondorioz:


- Biktimaren sinesmen politiko edo erlijiosoaren ondorioz.
- Arrazoi sindikalen ondorioz.
- Sexuaren edo sexu orientazioaren ondorioz.
- Emakumeak haurdun egotearen edo ama izatearen ondorioz.
- Adinaren edo egoera zibilaren ondorioz.
- Jatorriaren, etniaren edo nazionalitatearen ondorioz.
- Desgaitasunaren ondorioz.

84

Jazarpen moralak ez direnak (baina bestelako arau-hausteak izan daitezkeenak)

- Lan baldintzak nabarmen aldatzea, arrazoirik gabe eta legez ezarritako prozedurari jarraitu gabe.
- Aldian behingo ekintza diskriminatzaileak (TRLISOSen 8.12 artikulua).
- Lanaldia luzatzeko edo lan jakin batzuk egiteko presioak.
- Langile batzuen kontrako bereizkuntzarik gabeko portaerak.
- Gatazkak lanuzteetan, protestetan eta abarretan.
- Pertsona batzuek elkarren artean koordinatu gabe egindako irainak.
- Lana ondo ez egiteagatik, deskalifikatu gabe kargu hartzea.
- Gatazka pertsonalak eta sindikalak.

AURKAKO PORTAEREN AURREAN JARDUTEKO DIAGRAMA



Berdintasuna eta diskriminazio eza

Diskriminazio eza

Matia Fundazioak inolako diskriminaziorik gabeko lan ingurunea eskaintzen die bertan lan egiten duten pertsonen. Hau da, sexuagatiko, arrazagatiko, erlijioagatiko, adinagatiko, sexu orientazioagatiko, nazionalitateagatiko, egoera zibilagatiko edo estatus demografikoagatiko bazterkeriarik gabeko eremua.

Berdintasuna

Sektoreko baldintzak direla eta, tradizioz emakume gehiago aritu dira gure esparruan, gizonak baino. Denbora joan ahala, aldea gutxituz doa erakundeko lanpostu guztietan. Duela urte batzuk, gizonak sendagile lanetan edo ardura postuetan sartzen ziren erakundean; gaur egun, emakumeak nagusi dira lanpostu horietan ere.

Ibilbide horri eusteko konpromisoa dugu eta hautapen prozesuetan honako irizpide hau dugu: profil berdina denean, lanpostu horretan presentzia gutxien duen sexua kontratatuko dugu, harik eta kategoria guztietan sexuen arteko % 60-% 40 proportzioa egon arte.

Dibertsitatea eta integrazioa

Matia Fundazioak hasiera-hasieratik izan du desgaitasuna duten pertsonen sentiberatasuna. Gaur egun Matia Fundazioko 11 langilek dute hein bateko edo besteko desgaitasuna. 50 langile baino gehiago dituzten erakunde guztietan bezala, desgaitasuna duten pertsonen langileen % 2 izan behar dute, gutxienez, Matia Fundazioan eta Gerozerlanen. Alabaina, legeriak agintzen duen betebeharrak horretatik salbuespenak daude bi erakundeak, Lanbidek (Enpleguaren Euskal Zerbitzuak) 2017ko maiatzaren eman zuen hiru urteko salbuespeneko ebazpen positiboaren ondorioz. Salbuespen hori lortzearen arrazoia hau da: bi erakundeek merkataritza kontratua dutela «Gureak Garbitasuna» enpleguaren zentro bereziarekin, eta legeriak agintzen duen zenbatekoa baino askoz handiagoa fakturatzen dutela bata eta beste urtean. Horregatik, Gureak Garbitasunarekin kontratatutako zenbatekoak aise betetzen du Matia kontratatutako falta zaizkion 4 langile desgaituen eta Gerozerlanen falta zaizkion 8 langile desgaituen zenbatekoa.

Desgaitasuna duten pertsonen plantilla, taldearen arabera, 2018ko abenduaren 31n

		Emakumeak			Gizonak			Guztira
		<30 urte	30-49 urte	>50 urte	<30 urte	30-49 urte	>50 urte	
Matia Fundazioa	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	2	-	6	-	-	3	11
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	-	-	-	-	-	-	-

Ustelkeria eta eroskeria

Gure sektorean pertsonekin harremanean lan egiten dugu, maila guztietan; horregatik, oso garrantzitsua da erabiltzaileei eta beraien familiei eragin liezaiekeen iruzurrezko portaerarik ez egotea. Ustelkeriaren eta eroskeriaren harira hiru talde garrantzitsu bereizten ditugu:

- Egunero erabiltzaileekin lan egiten duten langile eta boluntarioak. Talde horretan, portaera txarrek egoera ahulean dauden pertsonen eragingo liekete zuzenean. Kontuan izan behar dugu egoitzetako eta ospitaleetako egoiliarak adinekoak izaten direla eta mendekotasun maila altua izaten dutela. Baten batzuek dementsia dute eta ezin dute bereizi langilearen edo boluntarioaren aldetik portaera desagokirik jasotzen duten. Prebentzio gisa, pertsona guztien (langileen, boluntarioen, erabiltzaileen eta beraien senideen) eskubideak eta betebeharrak zehazten dituen bizikidetza gidaliburua landu dugu. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Euskadiko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen betebeharrak eta eskubideen gutuna onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak hartu ditugu gidaliburu horren oinarri gisa.
- Erakundearen kudeaketa administratiboaz (kontabilitatea, erosketak, azpiegiturak, giza baliabideak...) arduratzen diren langileak. Talde horrek oso datu sentigarriak erabiltzen ditu eta informazio hori bidegabe erabiltzeko aukera dago. Esparru horretan lege hausterik gertatzeko arriskuak gutxitzeko barneko lan politikak jorratu ditugu. Neurri horietako asko zigor penalak prebenitzeko eskuliburuan edo kontrol mekanismo gisa jasota daude. Aipagarriak dira, besteak beste, hornitzaileen kudeaketa integralerako prozedura; izan ere, botere sistema zorrotz zedarritzen du eta erabaki garrantzitsuak hartzeko pertsona askoren onarpena eskatu. Azpimarragarriak dira, halaber, kanpoko auditoretzak eta kanpoko aholkularitza, zerga gaietarako. Auditoretzen eta lizendapenen Batzordea arduratzen da horretaz guztiaz; izan ere, erakundearen jardunari lotutako ikuskaritza lana, informazio lana eta proposamenak egiteko lana betetzen du.
- Zuzendaritza organoa eta bera ikuskatzen duen Patronatua. Talde horrentzat (eta gainerako bientzat ere bai), arrisku penalak prebenitzeko eskuliburua prestatu du Fundazioak.

Erakundeetan delituak eraginkortasunez prebenitzea da zigor penalak prebenitzeko eskuliburuaren helburua: horretarako tresna egokia izateko sortu da, beraz. Hartara, langileei eta erakundeetako kideei delituak prebenitzen laguntzen dien mekanismo gisa aritzen den plan bat dugu aurrean; izan ere, legez zigor daitezkeen jokabideak eta prozedurak (norberarenak nahiz hirugarrenenak, erakundean edo jardunean gertatzen direnak) identifikatuko dituen mekanismoa eskaintzen die.

Era berean, arrisku penala dakarren egoera baten aurrean nola jokatu zehazten laguntzen die erakundeei, legeria eta egoera prozesala aintzat hartuta, beren interesen defentsa bermatzeko.

Eta, azkenik, indarrean dagoen legeria benetan edo beraien ustez urratu egin dela antzematen dutenean, egoera horiek guztiak ebazteko eta tramitatzeko kanal egokia ere eskaintzen die.

Eskuliburua egiteko, erakundean gerta litezkeen arrisku penalak identifikatzeko aukera eman duen metodoa erabili da. Horretarako, Fundazioaren ohiko funtzionamendu normala aztertu da: ohiko jokabideak, eguneroko jarduna betetzeko prozedurak eta barne araudia eta legeak erakundeen jardun eremuan agintzen dituen arauak betetzeko protokoloak. Hartara, definitu eta zehaztu egin dira, besteak beste, erakundeen jardura eta antolamendu eremuan erabiltzen diren prozedurak.

Behin erabiltzen diren prozedurak zehaztu ondoren, erakunde bakoitzean dauden arrisku penalak identifikatu dira, eta gertatzeko aukeraren arabera sailkatu. Hala, erakunde bakoitzari egokitutako arrisku mapa lortu dugu. Identifikazioa egiteko ikuspegi bikoitza erabili dugu: edozein erakundek berezkoak dituen arriskuak batetik, eta sektoreari eta jardura ereduari lotutako arriskuak bestetik. Fundazioak ibilbide sendoa du gizarte erantzukizunean eta enpresako eta laneko etikan; hartara, onartutako erantzukizun korporatiboari buruzko dokumentazioa eta informazioa ez ezik, laneko arriskuen planean, ingurumen konpromisoetan eta ISO ziurtagirietan zehaztutako informazioa ere bildu da. Izan ere, erakundeetan dagoeneko txertatuta dauden ekintza mekanismoak dira, baina errefortzu neurriak ezarri zaizkie, prebentzio eredia eraginkorragoa izan dadin.

Ildo beretik, pertsona juridikoei beraigean eragin lezaketen lege urraketak jakinarazteko salaketa bide bat gaitu da, beharrezko egiaztapenak edo ikerketak egin eta neurri egokiak har ditzaten.

Hona hemen gertatzeko arrisku handiena duten delitu penalak:

- Sekretuak jakinaraztea eta informazio informatiko bidegabe erabiltzea.
- Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak.
- Langileen eskubideen aurkako delituak.

Orain arte ez da ustelkeria kasurik egon erakundean eta, beraz, ez da inoiz langilerik kaleratu ustelkeria dela eta. Era berean, kanpoko eragile batek ere ez du inoiz erakundea salatu ustelkeria kasuengatik.

Fundazioak delituak egitea saihesteko mekanismoak ditu indarrean:

- Segurtasun agiriaren erabiltzaileen eginkizunei eta betebeharrei buruzko dosierra.
- Etika eta jokabide kodea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko plana.
- Erakundeen kontuen auditoretza.
- Datuen babeserako segurtasun eskuliburua.
- Aldian aldiko auditoretzak zentro guztietan.
- Gobernu korporatiboaren urteko txostena.

Legearen arabera beharrezkoa denez arriskuak eta eskuliburuaren urraketak jakinaraztea, salaketa kanal bat sortu dugu, eskuliburuaren edukia nahiz indarrean dagoen araudia urratu duela uste edo antzeman duen edonork salaketa jar dezan. Era berean, eskuliburuari eta haren betetzeari edo interpretazioari buruzko zalantzak eta iradokizunak aurkezteko ere erabili ahal izango da kanala.

Langileen eta hirugarrenen arteko lankidetza errazte aldera, salaketa kanalaren erabilgarritasuna izango da oinarrizko printzipioa. Halatan, erabiltzeko aukera bat baino gehiago ahalbidetu da eta salaketa jartzen duten pertsonen konfidentzialtasuna bermatuko da

betiere. Langilek bestelako komunikazio bide informalagoak ere badituzte eskura, hala nola hierarkia, edota giza baliabideen departamentuaren edo osasun eta segurtasun batzordearen aurrean aurkezteko aukera.

Azken urteetan eta orain arte ez da inolako salaketarik jaso. Gaiak duen garrantzia kontuan hartuta, horren inguruan sentibilizatzeko eta ezagutzera emateko kanpaina jarriko dugu abian.

Eskuliburua langile guztiei zabalduko zaie, lanpostuari eta dituen arriskuei egokitutako prestakuntza ikastaro baten bidez. Eskuliburuaren kopia eta prestakuntza ikastaroa jasotzen duten langile guztiek agiri bat sinatuko dute, adieraziz horren berri badutela, edukia azaldu zaiela, ulertu egiten dutela eta betetzeko konpromisoa hartzen dutela.

INGURUMENARI LOTUTAKO GAIAK

Kudeaketa politika integratuak zehazten du Matia Fundazioak ingurumenaren alde duen konpromisoa. Izan ere, ingurumena zaintzeko neurri eta sistema egokiak indartzeko eta gure jarduerak sortzen dituen edo sor litzakeen ingurumen inpaktuak murrizteko konpromisoa hartu du erakundeak.

Gainera, pertsonak TREBATZEKO eta MOTIBATZEKO apustua egiten dugu, kalitatea, arriskuen prebentzioa eta ingurumen babesa sustatzeko tresna egokia delakoan.

Beste alde batetik, gure jardueraren izaera dela eta, ez dugu ingurumen arrisku larririk, eta gerta litezkeen gorabeherak identifikatuta eta kontrolatuta daude.

Aipaturiko aldian ez dugu inolako isunik jaso ingurumenari lotutako legeak edo araudia urratzeagatik.

Ondoren, gure helburu bakoitzean egindako jarduna berrikusiko dugu:

1: Emaitzak jakinaraztea, langileak trebatzea eta bisitariak ingurumenari buruz sentsibilizatzea

Kontsumoen emaitzen berri zabaldu dugu igogailuetako ingurumen tauletan eta, beraz, langileek ez ezik, gure zerbitzuen erabiltzaileek, bisitariak, hornitzaileak eta abarrek ere jaso dute horren berri. Txartel horietan jendea zoriontzen dugu kontsumoak behera egiten duenean, eta beraien bultzada eskatu, gora egiten duenean.

Ingurumenari buruzko sentsibilizazio kanpainak egin ditugu eta Udalak aintzatetsi egin gaitu azken urteetan sukalde nagusian biohondakinak bereizten egin dugun lanagatik.

2: Energiaren eta lehengaien kontsumoa murriztea


Ingurumenaren alde jokatzeko konpromiso sendoarekin bat, Matia Fundazioak ahalik eta gehien gutxitu nahi ditu baliabideen kontsumoa eta ingurumenean duen inpaktua, baliabide naturalen kontsumo jasagarria sustatzeko asmoarekin.

Ildo horretan, eta erakundeak bere kabuz bultzatuta, energiaren eta materialen kontsumoaren jarraipena egiten du eta uraren, energiaren eta kontsumigarrien osoko kontsumoaren adierazleak sortzen ditu. Bertan sartzen dira, gainera, gure taldeko Petra Fundazioaren kontsumoak ere. Paperaren kontsumoari dagokionez, ordea, ez da fundazio horri buruzko daturik jasotzen.

Orobat, zentro batean biomasa erabiltzen dugu ordezeko erregai gisa; hala, erregai fosil tradizionalaren ordezkari erabiltzen dugunez, CO2 isuriak murriztea lortzen dugu.


- Argindar kontsumoa

CM.MAM.- Consumo de electricidad (kwh)




- Ur kontsumoa

CM.MAM.- Consumo de agua (m3)




- Gas kontsumoa


CM.MAM.- Consumo de gas (kwh)



- Biomasa kontsumoa



- Paper kontsumoa



3.- Isurien, zaborren eta hondakinen kudeaketa egokia

Gure erakundeak sortzen dituen **CO2 isuriak** (Eusko Jaurlaritzaren kalkulu tresna erabiltzen dugu karbono aztarna kalkulatzeko) erabilitako erregaiaren eta energiaren ondorioz sortzen dira batez ere. Eta kontsumoen atalean horri buruz adierazi dugun bezala, erregaien erabilera arduratsua sustatzen dugu erakundearen, eta biomasaren apustua egin dugu, ordezkio erregai gisa erabiltzeko. Hona 2018ko datuak:

0,58 tona CO2 isuri dugu langile bakoitzeko; **507 tona CO2** guztira, beraz.

Argi kutsadurari dagokionez, eta ingurumenaren eta biodibertsitatearen harira, argi artifiziala erabiliz izaki bizidun batzuen ugalketan, elikaduran edo orientazioan eragin dezakegu. Hain zuzen, intsektuek eta batez ere eltxoek (piramide trofikoaren oinarria) jasaten dute kutsadura horren eragin handiena. Hona hemen argi kutsadura kontrolatzeko jardunbide egoki batzuk:

- Benetan behar dena soilik argitzea.
- Benetan behar dugunean soilik erabiltzea.
- Horizontaletik gora doan argi isuria saihestea.
- Argi intrusioa (argitu nahi dugun eremutik kanpo doan argitasuna) saihestea.
- Behar dugun argitasun maila soilik erabiltzea; hala, piztu eta itzaltzeko denbora ez ezik, argiaren intentsitatea bera kontrolatzea.

Kutsadura akustikoari dagokionez, gure zentro gehienak bizitegi eremuetan daudenez, gurpildun trafikoak eragiten du zaratarik handiena. Eremu horietan ahalik eta inpaktu txikiena sortzeko, hondakinak biltzeko eta zamalanak egiteko ordutegia zaintzen dugu; hain zuzen, merkataritza orduetan egiten ditugu horiek guztiak, gure erabiltzaileengan eta gure ingurunean ahalik eta inpaktu txikiena izan dezaten. Gure zentroen barruan ere zaratak murrizteko ahalegina egiten dugu jatorduetan, siesta orduetan eta abarretan, eta zarata gutxi ateratzen duten zoru porotsuak ditugu, erabiltzaileen eta langileen ongizatea hobetzeko.

Hauek dira gure jardueraren ondorioz **sortutako hondakin** nagusiak: etxeko hondakinak, hondakin sanitarioak eta hondakin arriskutsuak. Kudeaketa Integratuko Eskuliburuan zehaztuta daude hondakin arriskutsuak eta hondakin sanitarioak kudeatzeko sistemak eta bakoitzari dagozkion prozedurak.

Planifikatutako ekintza guztiak egin ditugu eta ez da inolako gorabeherarik gertatu.

Ondoren, sortutako hondakinei buruzko datuak emango ditugu, kilotan eta erabiltzaile kopuruarekin haztatuta:


Hondakin organikoen kiloak	164,7	% 100 errebalorizatuta
Errefusa kiloak	568	% 100 kudeatzaile mankomunatuaren esku
Paper eta kartoi kiloak	60	% 100 errebalorizatuta
Ontzi kiloak	42	% 100 errebalorizatuta
Beira kiloak	10,54	% 100 errebalorizatuta

Gainerako hondakinak:

Guztira sortutako hondakin arriskutsuak, kilotan (aerosolak, ontzi kutsatuak, bateriak, parafina)		1.564	% 100 kudeatzaile baimenduaren esku
Kudeatutako hondakin geldoak eta tamaina handikoak, kilotan		4.300	% 100 kudeatzaile baimenduaren esku
60 l-ko pila bidoia		1	% 100 kudeatzaile baimenduaren esku
Hondakin kilotan	Sanitarioak	590,35	% 100 kudeatzaile baimenduaren esku
	Ebakigarriak edo zorrotzak	173,755	
	Zitostatikoak	45,85	
	Iraungitakoak eta hondakinak	510	

Abenduaren 28ko 11/2018 Legeak informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruz xedatzen duena betez egin da txosten hau. 2018ko ekitaldiko informazio ez-finantzarioaren egoera islatzen da bertan, Merkataritza Kodearen 44. artikulua araber, urteko kontuen auditoretza txostenaren zatia baita.

San Sebastián, 15 de marzo de 2019



Fdo.: María Carmen Garmendia Lasa

Presidente del Patronato

DECLARACIÓN Auditoría Independiente – EINF

Emitida por DNV GL Business Assurance España S.L.

DNV GL BUSINESS ASSURANCE ESPAÑA, S.L.U. ha realizado la auditoría independiente de evaluación del Estado de Información No Financiera (EINF) correspondiente al ejercicio 2018, descrito en el informe "*Informe EINF Matia Fundazioa*" de fecha 15 de marzo de 2019 elaborado según Ley 11/2018, por la entidad:

MATIA FUNDAZIOA Y ENTIDADES DEPENDIENTES

sita en

Camino de los Pinos 35, San Sebastián (20018), Gipuzkoa, España.

Criterios de evaluación:

- Adecuación de políticas aplicadas a cuestiones no financieras, incluyendo los procesos de diligencia debida aplicados
- Pertinencia de los indicadores no financieros utilizados en relación a las políticas definidas; adecuación de estos indicadores a marcos nacionales, europeos o internacionales de referencia
- Comparabilidad, materialidad, relevancia y fiabilidad de una selección de indicadores clave de resultados no financieros
- Sistemática implantada de gestión de riesgos no financieros.

Alcance: MATIA FUNDAZIOA Y ENTIDADES DEPENDIENTES

El detalle del alcance de los trabajos llevados a cabo por DNV GL se plasma en el informe "*EINF de F_MATIA_Revision por tercera parte independiente_ DNVGL*" de fecha 10 de junio de 2019

Place and date:

Barcelona, 10 junio de 2019

For the issuing office:

DNV GL – Business Assurance España S.L.
Gran Vía de les Corts Catalanes, 130-136,
Pl. 9, 08038 – Barcelona, Spain

Ricardo Álvarez Muña

Operation Managers – Assurance Iberia